



MEZA

ETA

COMUNIOA

Eta oen gañeco doctrina beste devo-
cioen ejercicioaquin.

Aita Agustín Cardaverazec
animen oeraco emana.



TOLOSAN

32095 —



Lalama-ren alargunaren moldizte-
guian. 1859.



*Liburu oni" arquiteco zaizca
lengo orãcioaz gañera, berriro
eranciac, esamiña mandamen-
tuetatic, astearen zazpi egun
guztielaraco, Jesu-cristo gure
Ja unaren pacioco consideracio-
ac, arratz oroco Errosariva, ta
beste devocioac.*

IRACURLEARI AVISOA.

*IRACURLE ONA: Ez arren
bereala, ascoren guisa icaratu;
liburu bat idiqui orduco, guztia
beren gustora ezbadago ichi
nay dute. Zuc orrela izan bear
ezdezu: guztia bereala aditzea,
orren erraz ezda. Elizaco gau-*



Iracurleari
zac, edo Doctrina adictzeco
gauza asco latinetico artu bear
dira. Meza santuac, eta Comu-
nioac, guc esan al baño miste-
rio escutatuagoac dituzte: gure
dicha gucien iturri original edo
jatorrizcoac, oriec dira. Fede,
ta gogo onaz iracurtzen asi
zaitte, eta laster, edo nola ezta-
quizula Elizaco Doctrina, ta
misterio andiac gustoz, ta de-
vocioaz diran guztiac adituco
dituzu.

Vizcaitar asco gogotic asi,
ta beren modura, eta gurera
chic erraz, ta laster eguin dira.
Igaz iracurten batere etzequien

avisoa.

5

nescacha baserrico Vizcaitar bal-
aurten eusquerazco ondo iltzeco
liburutic bere aitari, piedade, ta
devocio miragarriaz, iltzen la-
guntzen, Apaiza jaunac, eta
beste ascoc arrituric icusi dute.
Onec, ta beste baserrietaco ascoc,
jayetan bacarric lecioa artu eta
beste bague, ederqui icasi dute.
Nagui alperrai ez zuc sinistu.
Doctrinariac ere eusqueraz icasi
nay ez dute: ta Jaincoaren
bildur bague, icasi nay dutenai
ere gogo quentzeco, milla gau-
za eusqueraren contra esaten
dituzte. Aurra euskeren
dutena, berac lotzen edo lotzen



*gabe icasi nay ez dute. S. Agust-
tiñec ciona: onai jarraitzeaz
lotza guera, eta onay ez jar-
raitzeaz lotza ez guera.*

*Animo bada, Cristau ona:
iracurteari gogotic ematen ba-
diozu, eguiña dago guztia. Naiz
Vizcaitarra, naiz emengoa ce-
rala: itz guciac berealacoan ez
adituagatic, laster orretara, ta
ondo aditzera eguingo cera. Guc
esolan cartillaco oracioac, mi-
sericordiazco obrac, eta contri-
ciozco actorano, cer esaten guen-
duen ezguñequiela, goiz gucie-
tan cantatzen guinducen eusque-
raz ta arratsaldeetan erderaz.*

*Escola maisuac au contuz era-
guiten balute, gucién buruetan
ecer costa gabe, laster ta ondo
oracio guztia sartuco liraque:
ta buruz daquiten ori ederqui
iracurrico luteque. Vide erraza:
goicean euzqueraz, arratsalde-
an gaztelaniaz, cartillaco ora-
cioac iracurri ondo, eta liburu
gucietan maisu, eta dicipuloac
iracurten seguru jaquingo dute.*



Egunoroco



CRISTAU ONAREN DEVOCIORIC
santuenac eta orien Doctrina.

SANTUAQUICO cristavaren de-

egercicioo.

vicioa cër edo nola dan Jesus
Maria, ta Joseren devocioco
liburuan esan zan. Orain bear
dan arguiaz gure viotzac go-
rago jasotzeko, Meza, ta Co-
munio santuaren, eta orieta-
raco beardiran oracioac aguertu
eta gucien beguietan paratu
bear ditugu. Egercicio divino
oyen Doctrina, edo arguiaren
premia cein andia dan, ondo-
ena daquite confesore Jaunac,
eta oyen zelo guziaren bear
naiz. Cristau onac Meza icus-
ten dute, ta comulgatzen dira;
baña cër dan Meza, nola co-
munioa artu bear dan, eta



nola oracioa eguin bear dan,
chit guchic daquite.

Escolariac ez duten anima
asco, eta Jaungoicoaren gusto,
eta atseguin andicoac intencio,
ta vorondate santuaz beteric
gure gende oen artean, edo
baster, eta arcaitz arte orietan
daude. Aita espiritual maite
ascoc, confesore onaren egui-
tecoric bearrena cer dan, ba-
daquite: au da, ez daquiten
oriei Ceruco videa banaca con-
fesonarioan eracustea: gure ne-
cazari onai bear duten doctri-
naren arguia, eta escua emate-
an, ta lagundu beren intencio,

eta espiritu garbiac Cerura ja-
sotzen: eta nola beren obra,
eta nequeac goizetic Jaincoari
ofrecitu bear diozcaten: ta
beren lan, eta bearren artean
noicean bein beren viotzac al-
chatu bear ditusten: Meza san-
tua nola enzuten dan: Ceru-
raco vicitzaren, edo Jesusen
Pasioco misterioetan cer frutu
andia guretzat dagoan: con-
fessio, eta comunioan nola ori
guztia bacoitzac artzen duan.

Dicha oyec iristeco eracutsi
bear zaye, nola beren animaz,
edo memoria, entendimentu,
ta vorondateaz baliatu bear



duten, eta baliatze au da viotzeco oracioa, eta meditacio, edo orren vide erreal. Onen gayac, eta erreglac liburu ascotan erderaz arkitzen dira. Eusquerazco egercicioetan bearrenac eman ciran.

Jaunaren, eta Ama Virgñaren misterioen gañean oracio onen gayac ematea, gauza erraza da. Baña nola gueyenac iracurten ez daquiten, eta daquitenac gogo guchi duten: gure pobrechoentzat beste videric arkitzen ez det, confesoreen zelo, ta paciencia baidic, ascoc eguiten duten be-

cela, confesonarioan banaca ba-coitzari ondoen dagoquion neurrian leccio, eta erreglac ematea, ta au berau Jesusen viotzeco egercicioetan ondo adierazotcea.

Ascorentzat oracio au eguiteco demboraric onena da Meza santua, cerren beste libre, edo obeagoric ez duten. Oracioraco vide, eta moduasco dira Anima batzuec goragotic, besteac beragotic Jaunac beragana daramaizqui: baña guztiai berdin bere viotza escatzen die, eta berequin ta beretzat guztiaic nai ditu. Ala



14
Egunoroco
berac eracutsi, ta aguinduricaco oracioan gucioe esaten diogu; *betor gugana zure Reinoa*. Onetan fedeco arguia, ta graciazco erreinua aditzen da; cerren gure Jaungoicoa ezagutzean, eta amatzean eguiazco erreinoa dagoan; lurrean beraren gracia, ta Ceruan beraren glorian. Erreino onetan sartzeco videa badaquizu, Sacramentuac, Meza, obra onac, oracioa, eta beste egercicio santuac dirala.

Ascoc oyen artean, santuen devocioa bederatzi-urren, edo Novenetan daucate. Gauza ona

egercicioa. 15
da; baña beguira zuc ondo, eta conseju erraz au, seguru gorde zazu. Ama Virgĩa edo Santuac onratzeco, eta zure, edo besteen trabaju, edo animaco nequeetan, orieci bitarteco nai dituzunean, liburu, edo errezo luce gabe, zure gusto eta era oneco bederatzi egunetan, ondo ciñatu, contriciozco actua viotzetic eguinta *Pater noster*, *Ave Maria*, ta *Gloria* bat egunero, baña fede vici, esperanza firme, ta amorio andiaz esaitzazu; eta nere contu ama Virgĩañaren, edo Santuen hitartez

Jaincoac segura adituco zai-
tualala; zure escaria eguin ezazu
onela. "Ama Santisima, edo
» N. Santu, nere bitartecoa;
» onelaco premian aurquitzen
» naiz: neretzat, edo urliaren-
» tzat, nic escatzen dizudan
» onelaco favoreala alcanza za-
» dazu." Ta asco da au Jain-
coac, eta bere Santuac zu adit-
zeco, eta orra Novena erraza.

Oracioric onenac Pater
noster, eta Ave Maria dira.
Esan dan fedeaz erresatzen ba-
dituzu, edo escari bacoitzean
cer escatzen dezun ondo pen-
satu, eta viotzean pisatuaz, Ce-

ruco meditacio, edo oracioric
onena eguingo dezu. Zuc sose-
guz au eguitea da oracio men-
tala, Santuac aimbeste alabat-
zen, eta zure oneraco aguintzen
dutena. Ta ona, confesore Jau-
nac escola andigabe necazari-
entzat Ceruco doctriña, eta
videa, sustrai onetatic confe-
sioetan Jaunaren bildur san-
tua dator, eta beraren leguea
gordetzeco, ta eguiazco peni-
tencia eguiteco gogoa, eta gu-
rari, edo griña gaiztoac ucat-
zeco animo vici eraguille bat;
eta au da Ceruco oracio gu-
ciaren frutu ederra.



Emen dator ondo *San Buenaventurac* oracioaren gañean ematen duan consejua, eta cristau on guciac gordetzeco chit deseatzten derana. Ala me-zatan nola beste zure devocio eta errezoetan chit soseguz eta gueldi egotea, eta isilic erre-zatzea zure aldean daudenai zure errezo edo jolasmodua-quin obra gaiztoric ez eguiteco. Santuac dio: *In spec. cap. 10. Juicio gabea, edo indiscretoa da oracioa, ascori obra gaiz-toa eguiten diona; eta zure oracio otsaz besteai beren de-voicio edo berotasuna quentzea*

MEZA

ETA COMUNIO SAGRADUAREN
DOCTRINA EDO ICASQUIZUNAC.

Zuc onen gañean jaquin bear dezuna, Trentoco Concilio san-tuan ederqui eracustenda. Doc-triña au guttia lecu ascotan da-car, eta iracurri nai duenac icusi bitza: *Ses 21. cap. 2. et cap. 8. Ses. 21. cap. 2. v. Ses. 22 cap 1 et 2 usque ad 8. in-clusive.* Lecu oyetan dacarren doctriña da: Sacramentu divi-no au comunioan batzuec art-zen dutela; baña gaizqui peca-



tariac becela, ta beren con-
denacioraco. Besteac Jaunaren
gracian, ta ondo egonagatic ere
comulgatzen ez dirala: baña
fede vici, ta amorio iracequi
batequin heren animetan de-
seoz Jauna artu nai dutela:
oyec comunio espirituala, edo
deseozco onetan sacramenta-
laren frutua artzen, ta sentit-
zen dutela. Irugarrenac berriz
gracian ta ondo comulgatzen
dirala.

Lenengoac Comunioa art-
zen date munduaren beguietan
bañan ez Jaincoarequico, ce-
ren pecatu mortalean dauden.

Bigarrenac, Sacramentua gu-
re beguietan artzen ez dute:
baña bai Comunio espirituala,
ta frutu aundiac Jaunaren be-
guietan.

Irugarrenac, Sacramentua
gracian artu, ta Comunio es-
pirituala eta sacramentala egui-
ten dute. Doctrina ciertoa da
pecatu mortalean edo desgra-
cian dagoanac comunio espi-
rituala ecin éguingo duala: eta
pecatu mortalean ori deseatzea,
pecatu andia da, nola ta peca-
tutic irteteco asmo sendo bate-
quin eguiten ezdan. Baña Jau-
naren gracian zaudela espiritu



ta deseo santuaquin beti comulga zaitezque, ala Mezatan, nola beste edocien lecu, ta demboretan. Ori nola dan guero esango degu.

Doctrina ciertoa da, ta Concilioac berac dio: naico luqueala, Meza enzuten daudenac Sacerdotearen ondoren comulgatzea, sacrificio divino onen frutu audiagoac Mezatan dauden guciac artu ditzaten; ta Canon sagraduac diote, lenengo demboretan mezatan ceuden fielac, comulgatzen cirala.

Espiritu Santuac Concilioandionez, zu mezatan comulga-

zea nai du, guchienaz comunio espirituala, edo deseozcoaz.

Emendic leccio bat icasten dezu, ta munducoen artean ondo bearra, au da: cristau onac, sarri, edo ascotan confesatzen, ta comulgatzen icustean orien contra ez gaizqui itz eguita. Obe da ascotan comulgatzea, bacan baño Eleiza santac ori nai zuan, ta eguiten zuan mezatan ceudenac comulgatzea Jesu-Cristoc bere viotzeco amorio guciac ori nai du, berarequin bat eguin ta izateco, ta concilioac ugari doctrina au Jesusen itzaquin eracusfen du.



ta zuc icusten dezu, ascotan
comulgatzea ceñ gauza bearra
dan gucionzat.

Zortzian bein, edo lenago
garbitzen dan alcandora, edo
arropa, urtean bein, edo illean
bein garbitzen dana baño er-
razago, ta obeto zuritzen da.
Aditzen, ta icusten dezu: zort-
zian bein confesatzen dana, er-
razago comunioraco zuritzen,
ta prestatzen dala, illean bein-
goa baño. Onec illero esamina
ona, damua ta propositua e-
guiteco ordu erdi bat bear ba-
du, amabost egunecoac laur-
den bat asco du: ta zortzian

beingoac ondo prestatzeko gu-
chiago bear du.

Emen confesore jaunac, la-
gundu ondo, damua, ta pro-
positua cein gauza andiac, ta
bearrac diran eracutsiaz, ta
damu ta propositu onetan,
contriciozco acto asco eguiñaz,
jardun dezatela.

Cristau on, ascotan con-
fesatzen cerana, ez gueyegui
bildurtu, ta zure confesioetan
ez atzeratu. Diabru charrac
esango dizu zortzian bein edo
gueyagotan confesatzea, ondo
ezdala. Orregatic ez utzi: gue-
zurra da, ez sinistu: confe-



sore onaren esana eguizu. Ara:
sentitzen dezu Jaunaren deya
esaten dizula: confesa zaitex
biar. Eguizu bada, aditu de-
zun ori. Ta zure bildurren ar-
tean contu cierto au eguin eza-
zu: confesatzeco aviso, argui,
edo gogoia datorquizunean, si-
niste osoan zaude, Ceruco
inspiracio orrequin Jesus mai-
teac escutic artzen zaituala,
aita amoroso batec bere seme,
edo alaba maitea artzen duan
becela. Orain bada: ¿norc si-
nistuco du, onec bere ume
lantzana galtzera, ta ondatzera
teraman nay duela? Inorc ere

ez. Bada guichiago Jesu-Cristoc
galtzera, ta gaizqui confesat-
zera eramango zaitu. Ez si-
nistu, ezpada zure confesore-
ari. Oni jarrai zayozu beti.

GOICECO ORACIOAC

www

Jaungoicoaren fedeaz begui-
ratu, ciñatu, ta egun onetaco
obrac ofrecitu itzatzu esanaz:

Nere Jaungoicoa, graciac ta
alabanzac ematen dizquitut,
ceren egun onetara Zu servit-
zeco ecarri nazun, nic infer-
nuan egotea mercei nuela.

Aita gurea ta Ave Maria.



Gaurco nere pensamentu, itz eta obra guztiac aguintzen ta ofrecitzen dizquituz, nere Jesus onaren odol preciosoaz batean Zure gloriatic andienerraco.

Aita gurea ta Ave Maria.

Ematen dizut itza zure graciarequin batean zu ez gueyago ofenditzeco, batez ere onelaco pecatu gueyena arrastatzen nabenean. Gaur diran indulgenciatic nere pecatuen satisfacioan eta animen sufragioan irabazteco intencioa eguiten det.

Aita gurea ta Ave Maria.

Indazu, Jauna, orretaraco bear dedan zure gracia. Nere bitarteco Santu, S. N. ta N. lagun zadazute, nere itz, eta propositu au gaur eta beti ondo gorde dezadan.

Jaungoico Santua, portitza eta betico bicitza cerana, libra gaitzazu gaitz gucietatic Jauna.

IRU AVE MARIAC.

Goicean, eguerdian, eta arratzean, iru Ave Mariac erresatu, eta indulgenciatic irabazteco, ezazu modu onetan:

Angelus Domini &c. Ain-



gueruac Maria Virginiari berri
onac eman, eta Espiritu San-
tuaren graciaz, Semea artu
zuan. *Ave Maria.*

Ecce ancila &c. Oná Jauna-
ren esclava, zure itzaz batean,
eguin bedi nigan. *Ave Maria*

Et Verbum caro &c. Jaun-
goicoaren Semea guizon eguin
zan, eta gure artean vicitu zan.
Ave Maria.

Jaungoicoaren Ama Santa,
erregutu ezazu gu-gatic, Cris-
toren promesen diña eguin gai-
tean. Amen. Jesus.

ORACIOA.

Iguzu arren, Jauna, gure

animetan zure gracia, Aingue-
ruac berri onac ecarri, eta
Cristo zure Semearen encarna-
cioa ezagutu degunoc, aren
Pasio, eta gurutzeagatic, resur-
recioco gloriara eramana izan
gaitean. Amen.

MAYA BEDEINCATZEKO

ORACIOAC.

Aitaren, eta Semearen, eta
Espiritu Santuaren icenean, †
Amen.

Jauna, gure esperanza zu-
gan dago, eta jateco bear dana
Zuc ematen dezu. Zure escua



zabaldu, eta gucioc bendicioz
betetzen gaituzu. *Pater noster*

Aita gurea errezatu, ta guero devocio andiaz ezazu:

Doai gucién emalle gure Jauna, zure escutic guc artu eta jan bear degun gucia bedeinca ezazu, Jesu-Cristo zure Semea-gatic: eta beraren icenean. Aitac eta Semeac, eta Espiritu Santuac guztioc bedeinca gaitzatela, eta bere gloriaco mayera belico eraman gaitzatela Amen Jesus.

Janaren ondoren graciac emateco ezazu:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean, † Amen Jesus.

Graciac, eta alabanzac emalten disquituzugu gure Jauna, orain, eta beti eguin diguzun on gucia gatic. Zugandic gure gañera etorri dan bendicio, ta mesede onegatic, mundu guztiac beti alaba zaitzala. Amen Jesus. *Pater noster*, eta guero esazu:

ORACIOA.

Gure onguille guciai, Jauna, zure bendicio ugariaz paga zayezu zure icen santuagatic; eta

anima fiel guciac Cerura Zu
alabatzerá eraman itzazu. *Pa-
ter nosterra, Ave Maria &c.*

Ta guero: Anima fiel gu-
ciac Jaungoicoac betico descán-
sua diela. *R. Amen.*

Emen juntatu gaituan Jau-
nac berac, Ceruco glorian gu-
cioc irichi gaitzala. *R. Amen.*



ASTEAREN

ZAZPI EGUN GUZTIETACO
ORACIO LABURRAC.

*Jesu Cristo gure Jaunaren
Pasioco consideracioac.*

ASTELENA.

Baratza santuco oracioa.

Considera dezagun nola Jesu-
Cristoren Magestadea, ostegun



Santu gabean aldareko Sacramentua eguin ezquero, guelditzen zala gure artean munduaren azqueneraño, deserri onetan gure pena gucien aringarri izateko, erretiratu zan bere iru Apostoloquin baratza santura; eta esaten die, nola triste ceducan bere anima. Euen ematen ditu Jesus maiteak, bere viotzeco estutasunac, bialtzan cisquion suspirio guztis tristeac, eguzquia baño argui-goco arpegui eder ura, illanteen dio triste-zaren indarrez, eta guelditcen da guztia eriotzaco pena ta larriz inguratua. Beguira deguigun

nola erretiratcen dan soledadera eta dijoan oracio mentalera, eracusteco gari, baldin gure penata estuta anetan alivio arquitu nai badegu, biltatu bear degula gure Jaungoico-gan, oraciora juanaz. Pensa dezagan ondo nola Jesus lur gogorraren gañean jartzen dan, eta bere Aitari eguiten dion oracio munduco pecatuac gatic aibeste agoniaz, nun da ematen dio do'orezco icerdiac gorputz guztian, eta betetzen zaizca bere begui ederrac negarrez, sentimentu ta penaz, bere pasio ta eriotzan, eta guereco demboregan, guizonac eguingo cituzte



pecatuac acodaturic; gogoratzen
citzaiozcan gurützean josico zu-
tenen gaiztaqueriac, Judasec e-
guingo cion saltzea, eta Cristau
gaiztoac guero ere eguingo ci-
tuzten aimbeste pecatu ichusi,
eta guztiaz gaiñ oien esquer gaiz-
toa, jaquiñic cien amorioac cem-
bat eragin cion aren Magesta-
deari, onec estutzen cion Jesusi
bere viotz amorosoa.

¡O nere vicitzaren Jabe gozoa!
¡O nere Jesus viotzecoa! Ceñ an-
diac diran nere culpa ta peca-
tuac, bada oriec dira Zure pena
gucien causa; ni pecatuan icus-
teac estututzen zaitu nere gaiz

taqueriac viotza orrela larritzen
dizute, ta nere culpac issuri era-
guiten dizute cere beguietatic
negar. Zu, ni zure gracia gabe
icusteac, maliciaren esclavo egui-
ñic, eta nere pecatuac narama-
tela infernura, ipintzen zaitu
eriotzaco agonian. ¡O pecatu ma-
daricatuac! ¡O iñore seculan e-
guin ez bacinduzte, iñoiz penatu
ez cinduzquen onela, nere Jaun-
goico gozoa! Zuec cerate nere
animaren etsai gogorrac nere
gorputzari emandaco gusto gaiz-
toetatic jayoac: nic nai zaitu
bada, aragui gaiztoa, cere cuti-
sia ichusiaquin batera, nic su



Jetatuko zaitut penitencia eguiaz-
coarequin mereci dezun becela
onela gueyago ofenditu ez de-
zazun graciaren jabea: egun one-
tatic gogoia artzen det vicitza
berri bat abiatzera, nere Jesus
viotzecoa imitatzeo, oracioari
ematea, peatna gorrotatzea,
igues eguiten dedala ocasio gaiz-
toetatic, mortificatzen ditudala
nere pasioac, eta zuri bacarric
jarraitzen dizudala. Amen.

Oracio Jaculatoriac.

Lendabicia. Arquitzen det Je-
sus, viotza larri, anima triste,

agoniaco trancean. ¿Cér guertat-
zen zazu, Jesus nere viotzecoa?

Bigarrena. Gorputzac icara,
arpeguico colorea eroritic, eta
bereala desmayaturic. ¿Cér mis-
terio diera oriet, nere Jesus?

Irugarrena. Icerdi otzac, zo-
tin, eta suspirioen artean, negar-
rez cere begai ederrac bustiric.
¿Ez dirazu Jesus ecar erantzuten?

Laugarrena. ¿Ay nere galdua!
Badaquit Jauna, bai, cer dezun,
ni galduco naizelaco bildurrez,
zaduzca egoera triste orretan, ez
det bada Jauna, peaturic gueya-
go eguingo; misericordia Jauna.

ASTEARTEA.

*Nola preso artu, ta Juecen
aurrean ipiñi zuten.*

Considera dezagun nola Judas traidoreac soldaduen capitán e-guiñic juanzan aurreneco, ausardia andiaz, eta lotza guchirequin becoquian, bere Maisua saldu esquero, adisquide moduan arpeguian berari musu ematera: orduan arcume manso Jesusec esan cion: ; Ah Judas nere adisquidea! ; Cér da ori? ; Cér asmo dacarzu? ; Musu emanaz orrela

entregatzen nazu? ; Pensatu dezazu ondo cer eguiten dezun? ; Ah guizon gajoa! Erruqui zaitut, ez dezazula orregatic ere confianza galdu: zuc nai badezu, oraindio ere zure adisquide nazu; badaquit saldua naucazuna, ez oraindic etsi: damu badezu, gucia barcatzeco, prest naucazu.

Considera dezagun emen Jesusen ontasun neurri gabea biltatzen onela Judasen salvacioa, eta guizon gaito onen malicia icaragarria, menospreciatzen bere salvacioa, eta esqueintzen citaionean bere adizquidetzat Jesus etzuen nai izan ezquer gaiz-

toroac, bere asino d'oloretatic
atzera biurtu. ;O Jesus! ;O on-
tasun paregabea! ;Norc amatu-
co etzaitu? ;Norc icusi ezquero
amoriozco cariño oriee confian-
za andi batez, cere oñetara da-
muturic ezqueñico etzazu? Baña
cembat dira, Judasen ofricioa
eguiten dutenac, interes char
bat nayago dutela Jesu-Cristo
baño? Campotic laztan eta bar-
rendic saldutzen dutela, gaizqui
comulgatzen diranean.

Alde eguin zuen Judasec go-
gorturic; eta emanic soldaduai
Jesusec licencia, oiee otso gose-
tuac, eta chacur amorratuac be-

cela eguin zuten salto atzaparrae
zabalduric arcume mansoaren
contra: batzuec eltzen diote bere
arpegui santuco illeetatic: bes-
teac bere buruco chimaetatic;
ayec ueciblea, oriee chistu tiraca,
botatcen dute lurrera: badara-
bilde oñ azpian, lotzen dizquiee
atcera bere escuac, egosten dio-
te soea bat lepora, eta ingurat-
cen diote gorputza cate bur-
nizco batequin deadar eguiten
dutela: ill' bedi emen, bucatu
dezagun bertan guizon guezurti
gaizqui eguñ au.

;O nere Jesus! ;O nere viot-
zeco cariño gucia! ;O cembra

sentitzen duen nere anima pe-
catariac, icusten zaitudanean ne-
re pecatuac-gatic menosprecio
ichusi oriee eramaten ! Estutzen
zaituzten cate oriee nere para-
tuac dira, lotzen zaituzten soca
oriee, ni preso naucaten lazoac
dira.

¡O nic sectula ofenditu ez ba-
cinduz ! ¡O nor deseguin le-
zaquean gaizqui eguifia, milla
vicitza costa bear balira-ere.

Eraman zuten Anas en echera
iscambilla, deadar ta garrassi an-
diaquin atropellaturic, ta iga-
rotzean erreca bat, bota ceban
ichusqui soldadu batet urtara,

ta tiraca, ta arrastaca ateraric,
eman cion belar ondoco bat bur-
nizo pala batez, alaco moduz,
non da ezarri zuen golpez lur-
rean, guelditzen zala bere ar-
pegui benegararria odolduric:
era onetan eramazuten Caifas,
Pilatos ta Herodes-en echera-ere.

¡O anima peccataria, au aditzen
zaudena ! Beguira zayozu Jesus
gozoari, guizon peccatarien farra-
garri eguifia, munduco gauzaric
billau-ena becela tratatzen dute-
la irarequin, eta menosprecioz ;
bada Santuac diotenez : ipiñi zu-
ten gau triste artan lecuric ichu-
sienen eta loiyenean, an beren



erara escutu artan nai cituzten
dollarqueria, ta burlaric citale-
nac eguiteco. ¡O nere Maisu,
ta Jaun Cerucos! Orrela tratat-
zen zaituztela canalla gaizto oriee.
¡O maliciaren ichua! ¡O gorroto
infernucos! ¡O demoniozco em-
bidia! ¡Nor ibillico da, honra ta
estimacioen billa, icusiric Jaun-
goicoaren jaquiaduria onsla me-
nospreciaturic? Eta alaz-ere izan-
diteque nic munduco estimacio,
ta alabanzac naiditadala? ¡O nere
soberbia infernucos! ¡O nere nai
era zoros! ¡Laznic barbulla gaiz-
toa, naidet irurin cenzutia? Eta
izanic jaquin-eza bera, naidet

iduqui nazaten jaquindun ar-
guitzat? ¡O nere Jabea! ¡O
baldin guciac ezagutzen banin-
dute naizanzat, eta ichitzen ba-
lirate auoa. Bada pecatuarequin,
menospreciatu det Jesus, Ain-
gueruen edertasuna, logratce-
arren nere gusto gaiztoac; esti-
macio gueyago eguiten dedala
munduaz, ta bere vanidadeaz,
Jesu-Cristo, ta bere graziaz baño.
Gogoa artizen det, nere Jaungoi-
coa, zu amatzea, zure gracia
bacarric estimatu, becatua-gan-
dic igues eguin, eta nere neque
ta persecucioetan adisquide, ta
gustoz egotea. Ala izan dedilla.

*Oracio Jaculatoriac.*

Lendabicia. Ostegun Santu gaba ¡ó gabaren tristea! ceñean preso artu zuten nere Erredentorea.

Bigarrena. Saldu izan zuten oguei ta amar diruban, bere odolaz erosi nai izan cituan orduan.

Iregarrena. Guela triste illun batean abebati loturic, gure Jesus ceducaten, beguiac estaldu-ric, belar-ondoa masallecoz guztia andituric: eta arpegui ederura, chistu loiz ciquinduric.

Laugarrena. Guizon lotzaric gabeac, ez da basterric echean.

nun zuen loiqueriac bota izan ceizquieanic?

Bostgarrena. Jesusen arpeguiac bear du orrela ciquindu? Céer esango du bere Amac orrela icusten badu?

Seigarrena. Nerea da culpa, Jesus, nic ditut loi orieci mereci; nigana betoz guciac, ez naiz joango iguesi.

ASTE ASQUENA.

Jesusen azoteac.

Considera dezagun azoteen pena gogorrac, nola guizon tropa

madaricatu batec jechitzen du-
ten Jesus Pilatosen echera, edo
patiora: quentzen disquioe bere
soñecoac, eta malicia amorratu
batez, esqueientzen dira sei borre-
ro, ez bacarric viciric larrua,
bai eta vicitza quentzera. Pre-
sentatzen dira, batzuec aranza
maquillaquin, besteac burni pun-
tac eransiric ceuscaten cordel go-
gorraquin: probatzen dituzte sol-
dadu, edo borreroac heren in-
darrae, gure Jesus onaren gor-
putz guziz biguñ artan; necat-
zen dira beargai onetan, eta lar-
gatzen dute gucia odolezco ibai-
bat eguiñic; eta nola cegoan bost

milla azote, ta gueyagoren on-
doreu indar guztiac juana, ero-
rizan bere odolac eguin zuan
balsan desmayaturic; icusiric
modu onetan soldadu batec, la-
gundu bearrean jaiquitzen, ipiñi
cion oña lepoan, eta abiatu cit-
zayon cargatzen, San Agustin,
eta San Bernardoc diotenez.

¡O nere Jesus! ¿Cér viotz bi-
gunduco ez da? Edo ¿por penaz
illtzen ez da icustean Erregue
cerucoa aiñ eritu, ta ichusituric?
Eguizu negar nere anima; Jesus
onaren doloreac senti-itzazu, bere
penaz izan bedi zure viotza, ne-
garresco ichaso bat, bada zure

culpac dira, bere pena guztien
causa: eguizu negar, emazu zuc
suspirio zure pecatuen damuz,
viotza erdiraturic, eta ezan za-
yozu cariñoz, eta amorioz: ; Ay
nere Jesus! ; Ay ene! Milla bider
ofenditu izan det, aimeste zor
diodan ontasun neurri gabea.
Nere vicitza gaizguille, eta peca-
tariac zaduzca era triste orretan,
billatcearren nere conveniencia,
aasia oriec gustiaquin. ; Ay nere
Jauna, ta Jaungoico gozoa! ; Cér
esquer gaiztoa izan diodan zure
amorio orri? ; Ceñ gogorra izan
naizen, nere pecatuaquin ecart-
zean Zuri orrembeste oñace.

¿Ceñ erruqui gabea, icustean
orrela Zure edertasuna? Jauna,
gaurtic abiatuco naiz zure penac,
eta nere pecatuac negar eguiten,
eta ematen dizut itza ez gueyago
zuri disgustoric ematea; Zuc bi-
raltzen disquidazun azoteac, pa-
ciencian igarotzeco, nere gor-
putz gaiztoa mortificatzeco, eta
Zuri beti jarraitzeco. Amen.

Oracio jaculatoriac.

Lendabicia. Jesus larru gor-
rian. ; Jesusi azoteac? ; Norc
onelacoric pensa cezaquean?

Bigarrena. ; Jesus guztia o-



dolduric eta desmayaturic, eta
ez det nic negarric?

Irugarrena. ¡Ah nere viotza!
Nola cera orren gogorra, icu-
siric oñ azpian Jesusen odola?

Laugarrena. Baldin bere a-
morioaren cordela lotu ez balute
coluna bati, ¿cer indar asco ci-
ran sujetatzeco Jaungoico bati?

Bostgarrena. Ea amorea, ni
ere sugetatu nazazu indarric ba-
dezu: indarrac badituzu Jesus-
ena bacera zu.

OSTEGUNA.

Jesusen aranzazco coroaacea.

Considera dezugun orain beste
tormentu berri bat: jancitzen
diote Jesusi granazco zoñeco zar
urratu bat eguiten dute aranza
belz punta zorrotzeco coroa bat,
igarotzen diote onequin bere
Buru sagradua odolezco errecac
eguiteraño; ipintzen diote bere
escuan cañaverazco cetro bat;
ematen dizquiete onequin gol-
peric asco here buru, ta gorput-
cean, ipintzen dute oñalqui baten



gañean jarriric, ta abiatzen dira
atseguin artcen, milla burla, ta
farra, milla siñu, ta jostatze,
guesurrezco Erregue bati bece-
la eguiñaz.

¡O nere Jesus gozoa! ¡O glo-
riazco Erregue! Etzan asco aim-
bat iduquitcea zure gorputz ar-
gala azotez idiquitzea, zure Buru
sagrada-ere igaro bear zuten
onela aranza zorrotzaz? Aranza
gogorrac: ¿cér pecatu cituen
nere Erredentoreac, onela ator-
mentatzeco? Baldin aranzaz ba-
dira pecatuaren penac, zulatu
ezazute pecatu eguin duana, eta
vez icutu arren nere Jesus viotze-

coaren gorputz inocentea, bada
etzuen, ta ez eguiñ cezaquean
pecaturic. Baña ¡ay nere peca-
taria! Nere Jabearen burua zu-
latzen duten aranza oriec, nere
pecatuac dira, nere murmurera
gaiztoac dira: andiac eta nayera
gozoroac, nere culpaz: nere cul-
pac mintzen zaituzte Jesus, nere
obra gaiztoac dira, Zure santida-
deaz orrela burlatzen diranac:
nere izqueta loiac dira zure ar-
pegui ederra orrela loitzen dute-
nac: nere soñecoetan izan dedan
arrotasun, eta vanidadeac dira,
zuri burla eguiteco ipiñi dizuten
capa zar ori. Gogoa artzen det



hada, nere Jabe go/oa, ez gue-
yago Zu ofenditzea, humilla izai-
tea, vanidade zoroac largatzea,
munduco figureriaz ez casoric
eguitea, baicic onen ordean nere
gorputzari mereci duen peniten-
ciaz ezarcea.

Oracio Jaculatoriac.

Lendabicia. ¿Cér pena dira
oriec, nere Jesus? ¿Cér tormen-
tu asmatu ditu zuretzat mundu
gaizto onec?

Bigarreca. ¿Cér burla, cér
festa pisu dira oriec, Jaungoico
bati eguiteco?

Irugarrena. ¿Nere amorioac
Jesus, ecarti zaitu munduaren
farragarri izatera?

Laugarrena. ¿Cembat obli-
gacioetan paratzen nazu emen-
dic aurrera. Zu hacarric servit-
cera? Asco da Jauna burlaric,
ez Jauna gueyago pecaturic.

OSTIRALA.

Gurutzean jositzen dute Jesus.

Considera dezagun gure Sal-
vatzallearen oñace gogorrac Cal-
varioco mendian: badaramate
vide artan barrena, beñ jai-

quiaz, bein eroriaz, osticoca, tiraca ta arrastaca, gure pecatuen pisua bere sorbaldá biguñetan cebala elduzan guisa onetan mendiaren goyenera: quentzen dizquioe bere buruco coroa, eta largartzen dute guztia odolduric, eta larrua urraturic; bitartean abiatzen dira batzuec, gurutzea lurtean sartzeco suloa eguiten, besteac badacazte iltzeac, besteac prestatzen dituzte malluac, eta guimbeletac, gurutcea lurtean sulatzeco, eta Jesus guztiari beguira, eranciric, larrugorrian, gende canalla ayen beguietan zutic, eta lotsaturic.

¡O icusgarri izan ditequean tristeena! ¡O pena berdiñic ezduena! Aingueruac baño ederrago dan guizona, egon dedilla onela ichusituric. Ceruac izarrez jazten dituan Jauna, egon dedilla lotsaric gabeco guizonen aurrean larrugorrituric. ¡O cer sentimentua Jesusenzat eranciric bere burua onela icustea! Ariqueta bere Ama guciz ederrac estali ciozcan buruco estalquiarequin bere araguiac, dio S. Buenaventurac.

Jositzen dute Jesus abe bati, eta ilzeen puntac doblatu, edo biurtzeco giratzen dute auaz berara, gorputz guztiz santua, ama-



host oñeco gurutzearen pisuaren
azpian. izan cedin oñace andiagoo.

!O ontasun neurri gabea! ;O
gende infamearen gogortasuna!

Jasotzen dute Jesus gaitzie
gabea, gurutzearen goi artan
mundu gustiaren beguetan, eta
emendic bere jarlecucic becela,
dago guizonai eracusten, dien a-
morio irazaquia, bada oiec gatic
illtzen da, eta aimbeste nai-die,
nun da oien vicitza ematearren,
entregatzen du bere burua eriot-
zara, eta izanic Jaungoicoa bera
ceñen vicitza dichosoa dan beti-
coa, eta mudanzaric gabea, eta
ññoren bearric ez duana, nai izan-

zuen beste vici modu bat artu,
guizon egutten zala gugatic, eta
onela ill gugatic: eta noiz gui-
zonac esquerric gaiztoenarequin
eranzuten dion, eta ofendituago
daucan, orduan beragatic ema-
ten du vicitza. ;O nere Erre-
dentorea, nere amorioa, nere
vicitza, nere anima, nere Jaun-
goicoa, eta nere on guztia! ; Cér
da au? Iru iltzetatic ecusten zai-
tut zaudela chinchilica. ;Nore
ipiñi zaitu egoera orretan? Bada-
quit esaten dudazula, nere Jaun-
goicoa: neri didazun amorioac
ipiñi zaituela artola orretan, eta
ui pecatutic libratzarren, zau-



dela escu, ta oñac preso dituzula.
Ezagutzen det, Jauna, amorio
nuerrigabe onen zorra; nere cul-
pac dirala. Zure penen causa:
obligacioan aurquitzen naiz a-
matzeco, Zu nere Jabea. ;O nic
amatzen bacindust gauza guz-
tien gañean! ;O nere viotza zure
amorioan erreric balego! Ill nai
det bada emendic aurrera nere
buruarentzat, eta mundu guz-
tiarentzat, eta vici nai det ba-
carric zuretzat.

Oracio jaculatoriac.

Lendabicia. Jesus larrugor-

rian Calvarioco mendian, mu-
du guztiaren aurrean.

Bigarrena. Jesus gurutcean
josiric lapur biren erdian, egu-
naren erdian.

Irugarrena. Illtzen da Jesus:
;Ay nere tristea! Orra nere pe-
catuen beargayac nolacoac diran.

Laugarrena. ;Cér poz izan-
dezaquet nic, Jesus, vici izateco,
Zu orrela illic icusten bazaitut?

Bostgarrena. Nere pecatuac
quendu dizutela orrela vicitza?
;Ay secula ofenditu ez bacin-
dust!



LARUMBATA.

Ama Virgiñaren bacardadea.

Considerá dezagun cristavac, obian edo sepulturán Jesu-Cristoren gorputza, eta bere Ama gozoaren bacardadea: beguira dezagun gorputz guztiz Santu, ta guztiz eder ura ichuturic, eta besturic naiz idiqituric, eta llagaz beleric, oñac eta escuac iltcezulaturic irtenic, burua aranza zorrotzac igaroric, arpeguia chistu ciquiñez loituric, lepoa socacurraturic, eta guztia aiiñ ichusitu

eta desichuraturic, nun da etcirudian beste gauzaric, ez bada ce-goala leguen arrac artua, eta izan-ñic Jaun au Aingueruen edertasuna, ceruetaco arguia, ta campoac lorez jazten dituana, guizon eguiñ esquero gugatic, dago illunduric, ichúsituric eta bezturic

Jackitzen dute gurutctic Josef ta Nicodemus Santuac, eta ipiatcen diote bere Ama viotze-coari bere besoetan. Beguira orain guztic, Andre triste ta pozgabe oni, bere viotzeco pena ta estutasun samifietatic irleten zai-izecan analcoaquin, bere arpegui-guztia bustiric; bere viotz liguñ



ura, dolorezco espata zorrotzaz
(Simeonec esan cion becela) iga-
roric, Amõndre guztien artean
angustiænata guztiori penatan
biartu cerana, cere viotz ori
ichaso samiñ bat eguiñic dauca-
suna. ; O cer pena izan zan zurea,
Virginiã guztiz garbia, icustean
cere Semea cere beguietaco argui
ederra guztia chistuz, eta belar-
rondocoz illundua: zure viotzac
ceban egon lecuia penazco erre-
tablo bat eguiñic ecustea: cere
entraña garbietaco odola golpe-
ca, azoteca, aranzaz, ta issuriric
icustea: cere animaco vicitza ira-
gogorrez galduric icustea.

¿Cér angustiac, cer estutasu-
nac izango cituan Ama Virginiã-
ren viotzac, bere besoet. tic quen-
duric, sepulturam sartzen icusi
zuenean bere Semea? ; O nere
Ama viotzecoa, ta alde guztietat-
tic penaz inguratua ; Zure oñ sa-
graduetañ etciten naiz, zure be-
guietaco negarrarequin bustitaco
lur ori muñ eguitera, nere viot-
zeco gogortasuna bigundu dezan,
eta zure bacardade ori sentimen-
tuz negar eguin dezadan. ¿Cér
eguin dezaquet nic, zu onen tris-
te ecusten zaitudanean? ; Cér or-
rembeste penaz inguraturic icus-
tean? ; Nola dago, Andrea, nere



viotza onen osca, ta gogorra, e-
gonic zurea aĩn ausia, ta samur-
tua? Zu tristeric, eta negarrez,
eta ni berriz nere beguietatic
malcocho bat issurigabe. !O ne-
re viotz arria baũo gogorragoa ;
¿Nola nere beguiac negarrez ur-
tutzen ez dira? Ni naiz andrea, zu-
re Semea gurutzean josi nuana:
barca zadazu, Ama misericordiaz-
coa, ezagutcen det nere miseria,
confesatzen det nere culpa, eta
dama det zure Semea ofenditua.

Oracio jaculatoriac.

Lendabicia. ¡O Ama soleda-

decoa, ceĩn bacarra, ta tristea
guelditu ceran cere Semearen
ausencian!

Bigarrena. ¿Cér eguin da zure
Semea? ¿Nora escutatu zatzu
cere beguietaco arguia?

Irugarrena. Ill da Jesus, ara-
co zure entrañetaco Seme eder
ura. ¿Nore consolatuco zaitu,
Ceruetao Erreguiña?

Laugarrena. Juan ciran zu-
retzat posaldi guciac, ez da aur-
quitzen, zu nore consolatu zaiz-
queanic.

Bostgarrena. ¡Ay Andrea!
nic alivioren bat eman albane-
guizuque, baña baldin ni banai.



zure penen causa, orain tcer eguingo det?

Seigarrena. Jarri naiz zure aldean; bioc eguingo degu negar, zuc cere Semearen penac, eta eriotza; ta nic nere pecatuac, ceñac izan diran orien causa.

IGANDEA.

Nere Jesu-Cristo Jauna, eta Aita gozoa, araco Resurreciocogau sagradu artan aguertu citzaizcana an zure Ama maiteari, artu zuan atseguintasun andiagatic, an gloriáz heteric Jaungoicotasuneco arguiarequin icusi.

cinduenean artu zuten atseguintasun ain andiagatic, escateen dizut argui eguin deguidazula Espiritu Santua-ren doayaqnin; cumpli dezadan zure vorondeata nere vicitzaco egun guztietan, bada vici cerade, eta erreinatzen dezu secula gucietan. Amen.

Oracio au devocioz esaten dan ba-coitzean irabasten dira larogueti milla urteco indulgenciac, Aita Santu Bonifacio zazpigarrenac conceditu cituan, eta Aita Santu Benedicto amairugarrenac confirmatuac.



ONDO CONFESATZECO
EJERCICIOA.

Confesatzeco gogoa Jaungoicoac ematean, favore aundi

bat eguiten dizu. Intencio ori-
zuc artzean cerekana bereala,
ta zure viotzean sartu bear
dezu, ta bacartasun orretan
pensatu Sacramentu onetan pe-
catuetatic Jaungoicoagana vi-
urtzeco bear dezula:

Lenengoa beraren gracia be-
ti prest dagoana.

Bigarrena, prestatzeco dem-
bora.

Irugarrena, diligencia, edo
zure eguin naya. Jaunari bere
ofensa gucien damu andi bat
escatu bear diozu, eta con-
ciencia ondo esamiñatzeco gra-
cia esanaz:

ORACIOA.

Nere Jaungoico guciz ona:
nere gaitz gucietatic zugana bi
urtu nai det baña orretaraco
nere pecatuen illuntasun one-
tan zure argui bear naiz. Mun
du galduaren argui, eta erre-
medio bacarra, Zu cera. Zure
misericordia aundia gatic, ar-
ren, Jauna, nic bear dedan
arguia indazu; nere conciencia
illuneco basterra ondo icusteco,
eta nere culpac, nere animan
diran becela, ezagutzeco. Betor
zure gracia, oriec ondo pisatu,

eta escatzen duten damu, ta
proposituaz bear becela con-
fesatzeco, Ori, Jauna, deseat-
zen det, ori erregutzen dizut,
eta ala uste det alcanzatzea
Jesu-Cristo Zure seme Jauna-
gandic, Amen Jesus.

AMA VIRGIÑARI TA SANTUAI
ORACIOA.

Ceruetaco Erreguiña, Jain-
coaren Ama chiz Santa, eta pe-
catari Zugana negarrez datocen
gucien misericordiazco Ama,
gurutzearen oñean Zure seme-
arequin nigatic igaro cinducen



penac-gatic, escatzen dizut, artu nazazula zure amparoaren azpian, beraren pasio eta merecimentu santuaz confesio onetan ni aprobechatzeko. San José guciz doatsua, Jesus, ta Mariarentzat bitartecoric maite-ena, biaquin eguizu nere pe-catuen damu eguiazco bat alcanzatzeko. Ceruco Santu, ta aingueru guciac, eta zuc nere aingueru guardacoa, erregutu ezazute, penitenciaco Sacramentu Santu au ondo artzeko presta nadin, Amen.

ESAMIÑA

CONCIENCIACOA.

D. JUAN BAUTISTA AGUIRREC
bere (urrea baño gueyago estimatu
bear guenduquean) liburuaren iru-
garren parteco lenengo iru eracut-
zaldietan dio onela :

*Azqueneco confesiotic orain-
dañoco esamiña.*

Jarri zaite, nere anima, Jau-
naren aurrean, Elizan, eche-
an, edo lecu egoquiren batean,



au da, sinistu ezazu beguira dagoquizula, lecu gucietan arquitzen dan, eta gucia arguiro ecusten duan Jauna. Adora ezazu umiltasun, eta errespeto guciarequin.

; Nere Jaun eta Jaungoicoa! Adoratzen zaitut: milla esquer, Jauna, eguin disquidatzun mesede guciacgatic. Betor zure gracia eguitera noan esamiña, eta confesio au ongui, eta zure onran eguiteco.

Beguira orain, nere anima, cembat dembora dan azquena confesatu ciñala. Beguira peca-

tu larriren bat aztu ote citzatzun, eta emandaco penitencia leyalqui eguin cenduan, edo ez.

Lenengo mandamentua.

Beguira, Doctrina icasteco aleguina eguin dezun; dala Elizara etorriaz eracusten dan orduetan, dala daquianen battegana joanaz; Jaincoaren itza contuz entzun dezun; Fede, Esperanza, ta Caridadezco affectoac sarritan eguin dituzun.

Onetan zabartu etzaitecen oitu zaitte goiz-arratsetaco jainerara doctriñaco liburuchoan dagoan becela.

*Bigarren mandamentua.*

Beguiria, juramenturic eguin ote dezun guezurraren, edo, ongui ez daquizun gauzaren gañean, eta cembat bider?

Beguiria, izan ote dezun juramentuac erraz, eta sarritan eguiteco oitura, eguiazcoac dirala aitzaguitzat arturic?

Hau da oitura chit itsusia, pecatu ascoren sustraia, eta Cristauen echeletic ayenatu bear dana. Juramentu sarritan eguiten duana beteco da pecatuz, eta ez da haren echeletic irtengo neque, eta nai-

gabea, dio Espiritu Santuac.

Beguiria, eguin dezun birauarequin nastutzen dan juramenturic, eguin dezagun contu, *emendic mugui ez naddilla, deabruac naramala, au onela ezpada.* Cembat bider?

Beguiria, esan ote dezun: *nere animan, au, edo hura onela da.* Cembat bider? Oitura, edo usanza charra da auere, eta guizon jaquintsu ascoren iritzian juramentu, eta beragatic erbestetu bear da Cristauen artetic

Beguiria, lagun urcoari bota diozun birauric; *Nolaco bi-*



raua? Cembat bider biotzetic,
eta cembat bider bestela;

*Biraua da esatea itzen bat-
zuec, ceñaquin, lagun urcoari
gaitzen bat opa diogula, adit-
zera ematen degun. Oitura
ichusi au duenac: batez-ere
gurasoac, pecatuan vici oi dira
biotzez botatzen ezpaditue-ere.*

Beguirra, idiai, beiai, edo
guizonari ez, beste gauzai bi-
rauric bota diezun.

*Ez da au pecatu larria be-
rez, jabeaganonz gorrotoa
nastutzen ezpada, baña da
izcunza charra, eta Cristauac
icasi bear ez duana.*

Beguirra, esan dezun *Dea-
brua, Demonioa*, eta cem-
bat bider? *Ez da berez peca-
tu larria Deabrua, edo Domo-
nioa esatea, soil-sollic begui-
ratzen zayola, baña ecarri le-
zaque onetaraco perilla, batez
ere gurasoetan: eta nola nai
da oitura itsusia Cristauaren
auan.*

Beguirra, promesaric eguin, eta
leyalqui eranzun diozun? edo
promesaric eguin dezun gait-
zen bat norbaiti etorri daquion.

Irugarren mandamentua.

Beguirra, jai egunetan Meza



enzun centzaqueala enzungabe
gueratu ceran, eta cembat
bider?

Beguiria, utseguiteco peri-
llean jarri ceran, dala mugon-
ean echetic abiatugabes, dala
bidean eraucian egonaz?

Beguiria, Meza modestia, eta
errespeto andiarequin enzun
bearrean, ibilli ote ceran ba-
tera, eta bestera beguiraca,
edo aldameneco lagunaquin itz
eguiten, edo oec oñaquin, eta
ucalondoquin joaz? Dembora
lucan, edo laburrean, Me-
zaren cer partetan, eta cem-
bat bider?

Beguiria, jai osoetan bear de-
becatuac eguin dituzun? Cem-
bat demboran, cembat bider,
bacarric, edo iñoren aurrean?

Beguiria, aste egunean eguin
cintzaquean lanac, soñecoac,
edo gurdia adabatzea, abarcac
jostea, esiac ichitcea, jai oso-
raco utzi dituzun?

*Badira cembait guraso, eta
nagusi, edo echecoandre Mai-
ruac baño gogorrargoac gai
onetan.*

Beguiria, contuzcoa izan ce-
ran, aleguiñean Meza nagu-
siac, eta Jaincoaren itza en-
zuteco, Errosariora, eta Dot-



*trinetara joateco? Gauz oetaco bacoitzac ez gaitu beartzen pe-
catu larriaren azpian, gucioc beintzat, baña oetatic iguesi
ibiltzea marca charra da.*

Beguiria, araguiric jan dezun jatea devecatua dagoan egun-
etan? Bacarric, edo lagunaquin,
eta cembat bider; Barauric autci
dezun barautzeco adiñean sar-
tua becera, eta artara beartua?

Beguiria, amarrenac, eta pri-
miciac sisatu, edo charrenetic
eguin dituzun;

Laugarren mandamentua.

Beguiria, gurasoi, edo zure

buru diranai gaitzic opa izan
diezun; Cer gaitz, eta cembat
bider?

Beguiria, zor zaten errespe-
toa galdu diezun, dala begui-
ratze gogorraquin, dala isecac
eguiñaz, edo lotsagabequeric
eranzunaz? Cembat bider, eta
cembat lagunen aurrean;

Beguiria, ibilli ote ceran gu-
rasoen aguinduac eguin nai-
gabe? Cembat bider, eta no-
laco gaucetan;

Beguiria asi dezun vicimo-
dua icastera ongui saiatu ce-
ran, dala escolan, dala jostean,
necazaritzan, arotzian, edo bes-



te lanquitzaren batean?

Gazteac chit ardura andia bear du ordu onean echeratzeco, sarritan confesatzeco, doctriñetara joateco, lagun gaiztoen batzarreetatic aldeeguiteco, eta ez du estadua artzeco asmoetan asi bear gurasoen baimengabe. Gurasoac, nagusi, ta echecoandreac, ezconduac, eta carguren bat duenac emen beguiratu bear duenola, eta cembat bider utseguin duen beren eguinbide, edo obligacioen contra.

Bostgarren mandamentua.

Beguiria, eguiatz, ete biotzelic amatu ote dituzun zure lagun urco guciac, eta oen artean zure etsaiac? Eguin ote dituzun sarritan acto caridandezcoac?

Hau eracusten du Doctriñaco liburuchoac goiz arratsetaco jaiieran.

Beguiria, opa izan ote dituzun etsaiari gaitzen bat? Cer gaitz; eta cembat bider?

Beguiria, haren gaitzaz pozutu, eta onaz naigabetu ceran? Gauz andian, edo chiquian?



Oarcabean, edo oartu ezque-
ro; Cembat bider?

Beguiria, zure etsaiari dio-
sala ucatu edo musinca eguiñ
diozun, edo gorrotoaren si-
ñalearen batzuec aguertu dioz-
catzun? Cembat bider, eta
cembat lagunen aurrean?

Beguiria, borroca, ucabil-
ca, edo maquilca ibilli ceran,
eta cembat lagunen aurrean;

Beguiria, edanean igaro ote
ceran, ezagüera galtzeraño,
edo aldescoraño; cembat bider?

Beguiria, griña lotzagarri
orretatic sortu, edo etorri ote
diran aserreac, hitz desones-

toac, queñada itsusiac, lagun
urcoen contraco erausiac, e-
chean naigabeac, umeen ar-
loteria, aciera gaiztoa, eta zor-
rac ez pagatzea?

*Pecatari-mota hau chit ne-
quez sendatzen da, ceren biot-
zic ez duen beren griña cu-
tuna utzitzeco.*

*Seigarren, eta bederatzigarren
mandamentuac.*

Beguiria, garbitasunaren,
edo castidadearen contraco go-
goracioetan egon ote ceran,
edo poztuaz, edo gozatuaz, edo
deseatuaz, edo ceregandic aye-



natzeco aleguñaric eguingabe,
eta lecu emateco perillean?
Oarcabean, edo osoloro oartu
ezquero hau guertatu dan, eta
cembat bider?

Beguiria, araguzco icenac
esan, hipui ciquiñac contatu,
edo canta desonestoac cantatu
dituzun? Cembat bider, cem-
bat lagunen aurrean, eta ho-
riec aideac, eta cer estaduta-
coac ciran?

*Onelaco hitz nascagarrie-
taraco macurtuac, eta oitura
zarra duenac, chit nequez
sendatzen dira.*

Beguiria, erabilli ote ditu-

zun zure beguiac, hecaturaco
videa dacarten gauzai begui-
ratuaz, edo celatan? Cembat
bider?

Beguiria, ganaduac elcarga-
natuac dabiltzanean, egon ote
ceran beguiria goisátuaz, edo
onetaraco perillean?

*Begui arroac, celatariaac,
ta gucia ecusi bear duenac
nequez izango dira garbiac.*

Beguiria, egon ote ceran hitz
desonestoac aditzen, eragotzi
centzaqueala onelaco hitzqueta
loia, edo aldeguin centzaqueala?

Beguiria, eciu aldeguin cent-
zaqueanean, copeta beltz era-



cutsi cenduan, edo hau eguin
lecuán eracutsi ote cenduan
poza?

Beguirá, zure quidecoaren
batequin eguin dezun jolas,
edò ibillera itsusiric? Cembat
bider? bacarric, edo iñoren
aurrean?

Beguirá, jai egunetan, edo
beste demboretan joan ote ce-
ran lagun gaiztoetara, edo pe-
caturaco perilla izan oi dan
lecuetara?

Beguirá, zure escu horiec
garbiac izan ote diran, garbi-
tasunaren, edo castidadeari da-
gozcan, gauzetan?

*Ez da emen gueiágo ipint-
zen iracurlearen gogoa ci-
quindu ez dedin; pecatariac
berac guertatu zaionaren con-
tuac atera bear ditu, gauz
andia goric badu.*

*Zazpigarren, eta amargarren
mandamentuac.*

Beguirá, ecer ostu dezun?
Cer, eta cembat bider?

Beguirá, echeco gasteren
baten estalqui izan ote ceran,
artoa, garia, edo beste gau-
zaren bat ostutzeco, edo isilca
saltzeco?

Beguirá, gauzaren bat salt-



zean edo erostean eguin dezun tramparic, neurrian, pisuan, edo precioan?

Begüira, epetan cerbait eman dezunean gueyeneco precioa baño gueyago tiratu dezun?

Hau da usura deritzan pecatu itsusia.

Begüira, jocoan tramparic eguin dezun? eta ecer guisonetan irabaci dezun? Eta trampa ez eguitera, galduco ote cenduan?

Begüira, gurasoen mendean vici diran gazteaquin, oei dagotenaz campora, eta gurasoen vorondatearen contra jocatu

dezun cerbait? Besteren gauzaren cutisiari lecuric eman diozun, vide oquerrez hura iristeco gogo, edo asmoarequin.

Vide onez gauza nai izatea berez ez da pecatu.

Zortzigarren mandamentua.

Begüira, egotzi ote diozun norbaiti ez duan falta, edo mancha, edo eguiñ ez duan oquerren bat? Cembat bider, eta cér falta?

Begüira, lagun urcoaren bati arpegüira eman ote diozun lotsatuco, edo naigabetuco duan gauzaren bat, dala berea,



dala aide, edo aurrecoena? Baccarric edo iñoren aurrean?

Beguiria, lagun urcoen falta isillac, edo barreatugabeac aguertu ote diozcatzun etzequizquianen bati, edo gueyagori? Cer faltac, cembat bider, ta cembat laguni?

Beguiria, echean igarotzen dana campoan contactu dezun? Cer contactu dezun, eta gauz andiac, edo paquea galeraztecoac ciran?

Beguiria, egon oteceran lagun urcoen faltac edo guztoz aditzen, edo erausi oec eragotzi cintzaqueala eragotzigabe?

Beguiria, lagun urcoaren falta barreatuac aditu, edo contactu dituzun, ceregan pozlutzen cerala, ta esaten dezula: *Jaincoac barca deguidala, ongui eguin zayo?*

Beguiria, norbaitec secretoaren azpian esan edo fiatu dizuna contactu dezun? Cembat bider, eta cembati?

Beguiria, saria aguinduric, edo losenchaquin aguereraso ote diozcatzun norbaiti urlia- ren, sandiaren, edo berendiaren faltac, edo isillic gorde bear cituan gauzac? Cembat bider?



Begaira,, izan dezun lagun
turcoaz arin edo erras gaizqui
juzgatzeco, edo aren faltac si-
nisteco oitura?

Begaira, esan ote dezun iño-
ren calteco guezurric?

*Guezurra erraz esaten dua-
na, erraz erorico da utzeguite
andietan ere.*

Ez dira gauz asco uquitzen,
ceren gucia esatea, eta beguien
aurrean ipintzea on estan: eta
becatariac gañeracoaren con-
tua atera dezaque erraz. Aur-
rai gogoan arrerazo bear zate
lembicia esamiñaren asieraco
presta era; guero mandamentu

bacoitzari dagocan esamiña li-
burutic esanerazo diteque egun
batean pisca bat, bestean bes-
te pisca bat. Ondoren eracus-
leac aditzera emango die ira-
curri dana bera, eta onela ne-
que andi gabe oituco dira esa-
miña eguiteco modura.

ESAMIÑA ONDORENGO ORACIOA.

O nere Jainco, argui gu-
cien Aita, ta doai on gucien
emallea. Ezagutzen del, zure
gracia dala, nic egun aldeza
quedan on gucia. Zure nere
anima salvatzecon deset ait e-





man didazu: zuc nere pecatuac
billatzeco arguia, ta arquitzeco
gracia. Zuri, bada, Jauna ba-
carric gloria guztia: zuri nere
viotzeco esquer fin ta cabu ga-
beac, Amen.

Santu, ta Aingueru guciac,
ta are milla bider obeto Ama
Virgñac, ta Jesus, arren, ta
zure Semeac alaba zaitzatela
orain ta beti neri eguin dida-
zun misericordia andi onega-
tic, Amen.

BARCACIOA ESCATZECO ORACIOA.

¡Ay nere Jainco guciz ona,

ta justua! Nere pecatuen ar-
tean sartu naiz, ta arrituta,
guelditu naiz. Ezdaquit nun-
dic asi, ta ez cer esan. Zure
justicia aserreari beguiratzen
badiot, ta contuetan nerequin
sartzen bada, galdua naiz, Jau-
na; ceren nere culpa eta zure
contraco ofensac, contu, eta
numeric ez duten. Buruco
illeac baño, ta ichasoco ondar
aleac baño gueyago dira, ta
orien carga pisuac seculaco on-
datzen nau.

¿Cér eguin aldezaquet bada,
estu onetan? Lotsaren, ta ica-
raren pasioz, nere ecer ecera



ondaturic, zure justiciatic zure
misericordiara biurtzen naiz,
ta oni nere favore deitzen diot.
Badaquit, Jauna, Zure mise-
ricordiac caburic ez duala, ta
nere miseria guciac baño an-
diagoa dala. Bearra det Jauna,
bearra det: ta au obeto ar-
quitzeo, Santu, ta becatari
penitente gucien damua, ta
orien eguiazco dolore, ta pro-
positua oraiñ iduqui nai nuque.

¡ O Jaun guciz santua, peca-
tuari gorroto gabe eciñ begui-
ratuco diozuna! Nere Jesus,
Zure semeac, pecatuen con-
tra iduqui zuen, ta zuc ta arc

orien contra beti dezuten, ecin
esan alaco gorrotoa bera, zu-
re justiciari esqueintzen diot:
ta ori da zure ontasunari dago-
quion pagu osoa, arrezazu, ba-
da, Jauna, ofrenda andi au: ta
ez nigatic, ezpada Zure Seme
Jesu-Cristo gure Jaunagatic,
ceñen icenean esquintzen dizut.

Ez arren, Jauna, nere cul-
pa andiac beguiratu, baicican
aren meritu andiagoai, aren
Gurutzeco dolore, pena ta a-
morio guztiari: an nigatic, ta
niri barcatzeco penaz, ta dea-
darrez erregutu cizun: ta Zuc
bere erreverencia-gatic Jesus



ona aditu cenduan. Indazu bada, ondo confesatzeco bear dedan gracia, Amen.

Emen quezca, ta bildur gucietatic libratzeco. Acto contrioco asco, Confesorearen oñetara baño len, eguin bear dituzu modu onetan.

CONFESATU BAÑO LENAGO
EGUITECO ACTO CONTRICIOZCOAC.

Jauna: Zu cera nere Jaungoico guciz ona: ta orregatic damu det viotzetic Zu ofendituaz, ez gueyago ofenditzeco

propositu firmearequin.

Jauna: Zu cera nere Aita guciz maitea: ta orregatic damu det viotzetic zu ofendituaz, propositu firmearequin.

Jauna: Zu cera nere Jabe guciz santu, ta justoa: ta orregatic damu det zu ofendituaz, propositu firmearequin.

Jauna Zu cere nere onguille guciz amoroso, ta doai gucien emalle chit ugaria: ta orregatic viotz guztitic det damu, nere pecatuaquin zu ofenditu izanaz, ez gueyagoren gueyago zu ofenditzeco propositu firmeaz.



¡ O Jauna ! ; Zu cera nere
Salvadorea, ta eman nai di-
dazu ceruco gloria ! Orregatic,
bada ta cerren guztiz ona ceran,
damu det, Jauna nere peca-
tuaz propositu firmearequin.

Ay nere pecatu zori gaiz-
tocoac ! ; Ay seculan eguin ez-
banitu ; ! Ay cer dicha, milla
bider ill banitz nere Jaungoi-
co maitea ofenditu baño lenago.

Jauna : ez gueyago Zure
ofensaric : ill bedi pecatua, ta
vici-bedi nere Jaungoicoa. Jau-
na, nayago det ill, zu ofen-
ditu baño,

CONFESIO AURRERACO

IRU CONSIDERACIO.

Sacramentu onetan bear dan
frutua ateratzeco confesio guz-
tietan iru gauza ondo pensatu
bear dituzu :

*Lenengoa. Edoceiñ confe-
soreren onetan jartzean Cal-
varioco mendian Jesusen gu-
rutze-pean arquitzen cerala.*

ORACIOA.

¡ Ay ostiral-santuz ni an
arquitu baniz, cer negar, cer

deadar viotzeoac eguingo ni-
tuan! ; Ay nere Salvadore mai-
tea, nere pecatuac ipiñi zai-
tuste estadu triste orretan! Ez
Jauna gueyago pauso gaiztoric,
baicic vicitza berria: ala ematen
dizut itza Zure graciarequin
betean, ta esperanza osoa da-
ducat barcatuco dizquidazula
nere pecatuac Zure mereci-
mentuac dirala mediante.

*Bigarrena. Confesatzera
zoacen gucian, federic vici-
naz pensa ezazu, ez guizon
baten, ezpada Jesu-Cristoren
oñetara zoacela.*

ORACIOA.

¡ Ay Jesus nere viotzeoa!
Baldin Jerusalem Zure egu-
netan vici izan baniz, edo Zu
orain, orduan becela, emen
aguertuco baciña, Zure oñetan
belaunico jarriric nola esango
nizuquean: ona, Jauna peca-
tariric galduena pecatu mor-
tal ascoren enfermedade crue-
len azpian ondaturic arquitzen
naiz. Zu cera nere animaren
medicua. Zuc daquizu nic baño
obeto nere gaitz gucien berri.
Arren Zure misericordia-gatic



senda nazazu. Banua bertatic,
Zuri nere pecatu guciac zure
ministròaren oñetan aitortzera,
eta confesatzera. Ta Zuc nola
nere berri daquizun, ez lotsa,
eta ez bildurric izango det,
nere barren gucia aguertzean.

*Irugarrena. Confesatzen
ceran guztian contu eguizu ori
izango dala azquenecoa, ta
illtzeco confesatzen cerala. Ill
bearra fedeco gauza da, eta
confesio gabe espazuaz, au
edo beste bat izango da zure
atzenecoa.*

ORACIOA.

¡Ay nere viciaren, ordu ta
demhora gucien jabea! Zuc
esango baciñic, au dala nere
atzeneco confesioa: illtzeco zo-
rian nagoala: bereala ill bear
derala, edo nere Aingueru
guardacoac Zure-gatic manda-
tu au eguingo balit: ea, orain
confesatu, eta bereala ill bear
dezu: etzera gueyago confesa-
tuc. Jesus milla bider. Adio
esango nuque, adio mundua:
quen, quen ortic nere lagun
falso, eta gaitzoac: campora
seculaco nere viotzetic oitura



gaiztoac: zoazte emendic, on-
dasun gaizqui eramanac, zoaz-
te nere ibillera gaizto, ta mun-
duco atseguin guezurtiac: zo-
azte jan edan gaiztoa, anima,
ta gorputza galdu dirazuna: zo-
azte gucioc oraindaño zoratu,
eta galduric iduqui nazutenac:
zoazte belico nigandic: ill bear-
det. Jaincoac ala dio ta ala nai
du. Ay nere Jesus ona, nere
ja be maitea: ta cein damu de-
dan zu nere pecatuaquin aim-
beste bider ofenditua. Damu
det lenago bear becela ez pres-
tatua. Zu nere Jainco ta nere
Aita ona, amatu, ta servitu

bearrean aimbeste bider ofen-
ditu saitut.

¿Nun da Jauna nic eman
bear nizun onra, eta errespe-
toa? ¿Nun da nic zuri bear
nizun amorioa? Etzan neret-
zat onraric asco zure seme
izatea? Bay nere Jesus ona. Da-
mu det Jauna nere viotz guz-
titic zu ofenditua, cergatic ce-
ran orren ona, Sautua ta a-
mablea. Zugan Jauna arquit-
zen dira Ceruco Santuac, eta
Aingueruac, eta criatura gu-
ciac secular ecin esan, eta com-
prendituco ez dituzten exce-
lencia, grandeza, ta perfeccio



guciac. Zu orrelacoa izanic,
damu det Zu ofenditua bacar-
ric, Zu ceranagatic. Atzeratuco
ditut nere oitura, eta egitura
gaizto guciac, eta eguingo det
penitencia nere pecatuen ven-
ganzan, Zu maite zaitudala adi-
erazten dedala ondorengo vici
modu berri batequin. Amen

Onela prestatu naico dezu
illtzeco demboran. Bada contu
ori oraiñ eguizu, eta nere con-
tu ondo prestatuco cerala, eta
eguingo dituzula ondo zure
confesio guci guciac.

Oraindaño esan danetic eza-
gutuco dezu; esamiña concien-

ciacoa eguin, eta beste bague
confesatzera dijoacenac, gaiz-
qui confesatzen dirala, dolore
ta proposituaren faltaz, ceñac
diraden parteric principalenac:
eta confesio general bat egui-
teco premian arquitzen dirala.

Gañera dolore, ta propositu
au iristeco, bear da ascotan
dembora gueyago, conciencia
esamiñatzen baño.

Bezperatic, edo lenago lan
onetan jardun gabe, goicean
lasterca jantzi, eta Elizaraco
videan eguiten dezun esamiña,
eta dolore ariñarequin beste
gabe bereala confesatzea, da



gauza peligrosoa: ceren pre-
saca, eta espacio gabe nequez
ondo eguiten oidiran gauza
oec. Beintzat naico etzenduque
illtzeco orrela prestatzea.


Lenagoco pecatuac barca-
tuac egon arren confesio ona
dala vide, aen, eta beste gu-
cien gañean, artu bear da do-
lorea confesatuac ez baleude
becela.

Guero confesorearen aur-
rean belaunico jarriric, ciñatu
zaite, eta esan viotzetic: *Ni pe-
cataria, edo Nere Jesu-Cristo
Jauna*, eta guero arrimatuco
cera confesorea-gana modu o-

netan, eta esango dizcatzu zure
pecatuac, diranac diran becela.

CONFESIOA ONDO EGUIN,
TA GUERO EZAZU:

ORACIOA.


 nere Jaun^{ns} amoroso, ta
misericordiazco Aita! Zure o-
dol preciosoan nere anima bere
culpen loyetatic garbitu nai
izan dezu. Zuri esquerrac, Jau-
na, ceren pecatuen eriotzatic
libratu ta Ceruco bidea eman
didazu. Ez nere Jesus, gueya-
goren gueyago pecatuari lecu,
edo ostaturic nere viotzean Zu-



re amoriozco viciera onetan
nere anima sendoago jarri de-
din, orain zure comunioco
Sacramentu adoragarrian Zu
ondo artzeco indazu gracia,
Amen.

COMUNIO ESPIRITUALA.

CER EDO NOLA DAN.

nirna justua: Mezatan, edo
bestela cere spirituaz edo de-
seo viciaz comulgatzea da co-
munio espirituala. Eta da Jesu-
Cristo-ren chit atsegin andico
gauza, edo egercicio divino bat
chit erraza, eta animaren ira-

baci andiaz nai dezun guztian,
seguru eguingo dezun devo-
cioa. Santuen dotriña da: iñoiz
comunio espiritual batean, Sa-
cramentua artzea danean baño
gueyago Jaincoarequico irabaci
edo merci ditequeala: cerren
comulгатzen danac baño, beste
comulгатzen eztanac, devocio
edo fervore andiagoo daducan,
ta espiritu gueyagorequin pres-
tatzen dan. Fervore, devocio
eta espiritu au naidu Jesu-
Cristoc, eta arrazoi andia da
zuc ari orretan gusto ematea.

Eta Aita: ¿Comunio espi-
ritual ori nola eguiten da? Chit

erraz: edoceiñ lecutan ta noiz
nai. Ara, zuc Meza enzutean
edo Elizara Santisimoa adorat-
zera zoacenean, edo echean,
edo videan, edocein lecu, ta
demboretan ecarri itzatzu go-
gora Jesu-Cristoren sacrificioco
misterio divinoac, bere Sacra-
mentuan; eta aldezun federic
vicien, ta amorioric iracequie-
naz zure viotzean desoz co-
mulga zaitea. Au, ta ez bes-
teric da comunio espirituala:
Aita: Baña devocio ori nola
eguin dezaquet? Ara nola: esan
dan fede vicia ta amorioaz
viotzetic zure modura esayozu.

COMUNIO ESPIRITUALA.

JAINCOAC NAI DUAN BECELA, ZUC EGUI-
TECO IRU MODU ERRAZAC.



¡ nere Jesus, Jainco, eta
guizon eguiazcoa! Zure onta-
sunac, eta nere amorioac Sa-
cramentu orretan zaucasqui. Fe-
deric aldedan vicienarequin si-
nisten ditut misterio onetan
Zuc eguiten dituzun milagro
guciac. Aldedan humiltasun
guciaz adoratzen zaitut, Zure
ofensa guciac damu ditut ce-
ren amatzen zaitudan gauza gu-
cien gañean. Or zaude nigatic,
Zu nic nere viotzean recibitzeco.



¡O! ¡Nundic, edo nola amorio au pagatuco dizut, ezpada nere espirituan, ta de-seoz Zu comunioan artu, eta Zure ondasun neurri bagueco oriequin baicic? Sacramentu onetan Zu ondo artu, ta belico comulgatu nai det. Baña ori ecin badet-ere, Comunio espiritualean artu nai zaitut, zure graciarequin esquer onac Zuri beli emateco, Amen.

¡O nere Jesus amoroso, gau eta egun nere beguira Sacramentu orretan Zaudena! Viotz garbia, eta vorondate ona duten animai zure gorputza or-

ematera etorri cera. ¡O nere Jainco escutatua! ¡O cer favore, ta erregalo divinoa, zu nere viotzean artzea! O eta norc Santu, ta Aingueru gucien virtuteac lituzquean: eta Ama Virgiñaren garbitasuna, eta amorioa, comunio espiritual onetan zu bear becela artzeco Atoz nere Jesus, atoz ordu onean: ta zure bendicio, eta amorioz nere anima seculaco bete zazu. ¡O nere Jaun Soberano Sacramentatua! Betor zure fede vici, ta argui bero bat, nere anima, zu errecibitzeco, ondo presta dedin. Bestela nic

mereci ez det, zu nere viotze-
co echean sartzea. Baña itz bat
esazu, ta gucia eguiña dago,
eta nere anima salvatuco da.
Virtute guztiaz ondo jantzi, ta
apainduric comunioan beti er-
recibitu nai cinduzquet: eta ani-
ma guztia zure gracion co-
mulgatzea nai nuque. ; O cer-
dicha zu nere Jauna nere viot-
zean artzea! ; O eta ceñ aberats
izango nintzaquean, zure Sa-
cramentuan errecibitzen bacin-
dut. Nere animac zure bearra,
eta zurequin beti egoteco gogoa
dauca. ; Nere Jesus ona! Zu cera
nere animaren eguiazco vicit-

za, zu bague ecin vici naiz. Beti
zurequin bat eguiñic vici, ta ill
nai det zure escuetan, Amen.

Fedeco, eta amoriozco Acto
asco eguiñaz cere modura, er-
razago ere comunio espirituala
eguin dezaquezu naizun gu-
cian.





**ONDO COMULGATZECO
EJERCICIOA.**

Gauza jaquiña da, confesatzen dan guztian ez dala pre-

cisoa comulgatzea, eta cristauric onenac ascotan guelditzen dirala comulgatu gabe.

Beinic bein, confesio generala eguiten duenetan, bi, edo iru confesa alditan ez da comulgatzen: ez eta confesoreac penitenciaz, mortificacioz edo pruebaren batzuec eguiteco disponitzen duenetan ere. Eta dotriñaren falta, ta errore gaizto bat da pensatzea pecatuac ez dirala barcatzen, comulgatu arteraño.

Ala zuc utseguin ez dezazun onetan, ez dezu beinere comulgatu bear confesoreac



aguindu bague, utzitzen de-
zula humildade aundiarequin,
ez juateco esaten dizunean; ta
baldin aguintzen badizu co-
mulga zaitecela, prestatuco
cera ondorengo consideracio o-
nequin.

CONSIDERACIOA.

Pensatu nor datorren co-
munioan zugana. Jesu-Cristo
gure Jauna, Jainco, eta gui-
zon eguiazcoa, hera dan gucia,
Hostia santuan dator, zuri la-
guntzera. ¿Eta zu nor cera?

ORACIOA.

¡ O Ceruetaco Erregue, Jaun
aundi, nere Jesus maitea! ¿Zu,
nigana Cerutic jachi cera? ¿Au-
cér da? ¿Nori onelaco gauza-
ric, Zure amorioari baicic go-
goratuco citzayon? ¿Izan di-
téque, eta (fedeco eguia da)
nic, eta Zu nere Jaun andia,
Ostia chiqui batean nere viot-
zean artu bear zaitudala? ¿O
misterio guciz escutatú, ta gu-
ciz miragarria! ¿O amoriozco
Sacramentua! ¿Cer eguin al-
dezaquet nic ezpada Zure aur-
rean arritu, humillatu, eta



nere vlotzeco atea Zuri pozic
idiqui, nere animaco ostatu
pobre onetan, Zu Erregueric
andiena artzeco? ;O Ceruaren
garbitasuna norc luquean! ;O
Aingueru eta Santuen espiritu
gucia, eta Zure Ama Virgña-
ren virtuteac, Zu orain bear
becela artzeco, norc lituquean!
Eguia da, ni pecatari galdu
bat naizala. Baña, Jauna, Zu
cera nere erremedio gucia. Atoz
bada, atoz misericordia gucien
Jabea! ;O nere emalle guciz
aberatsa! Zure ontasun cabu-
gabea, eta zure emanayac em-
peñatu, ta eracarri zaitu Ceru-

tic lurrera: Zure ondasunac
cerorrequin batean niri emate-
co. ;O favore paregabea! Ba-
daquizu, zure diña ez naizala ;
ta alare orregatic zure amo-
rioac zacartzi nigana. Badaqui-
zu, ceren premia daucadan: chit
bearra nago. Indazu fede vici,
esperanza firme, ta caridade
iracequi bat zuc naien dituzun
beste virtuteaquin, zu nere a-
niman ondo artzeco, eta aur-
rera obeto amatu, eta servitze-
co, Amen Jesus.

*Sacerdotea Comunioa ema-
tera datorrenean, arrimatu-
co cera comulgatzeco lecura*

*fede vici ta amorioz beteric.
Eta bendicioa ta barcacioa
ematean zuc ere Jaunari es-
catuco discatu. Jauna art-
zen dezunean escatu aoz,
edo viotzez, cerorren devocio
gueyago dezun moduric one-
nean.*

COMUNIOAN.

Jauna ez naiz ni diña zu ne-
re echean sar-zaitecen, bada
asco da zure itz bat, nere ani-
ma sendatzeco, ta salvatzeco,
Amen Jesus.

Guero Jauna artzean egon bear dezu
gueldi, devocioz eta modestiaz: burua
alchatu zucen, beguiac lurrean edo i-
chita: aboa era onean zabaldu, ta min-
gaña pisca bat atera bear dezu eta orrela
comulgatu bear da:

Graciac emateco erara jarri zaite le-
cu on batean ta aleguiñaz ez beste gau-
zari beguiratu ezpada zure Jaun andia-
ri bacarric: cere sentidu guciaquin cere
barrena devocioz sar zaite, etorri dan
Jesus maiteari itz eguiteco, eta esquer-
rac emateco esanaz onela.

ORACIOA.

¡**O**ngui etorria cerala nere
Jaun aundia, eta nere guzlia!
¡O nolacoa dan Zure amorio-
aren indar paregabea! ¡Nori
secula gogoratu, Jauna, Zuc



neri onelaco favorea eguingo
cinidala! ; Ay nere Jesus guci-
z ona! ; Eciñ, Jauna, eciñ bear
becela ni Zure diña izan! ; Ay,
eta cer eche, cer ostatu po-
brea nere viotzean artu dezun!
Baña Zu cera bacarric Ceruan
eta lurrean nere Jaungoicoa.
Zu asco zaitut bacarric ta zu-
requin nago chit aberatsa.

Ea bada, atozte barrena,
atozte nere beguiac, nere es-
cuac ta beste sentiduac, atozte
guciac zuen Jabe amoroso oni
ongui etorria emateco, ta gu-
cioc Jesus viotzean, ta beraren
antzera santificatu, eta viciera

berri bat eguiteco bear dezu-
ena escatzera. Zuen gucién er-
remedioa da bera. Nere me-
moria, adimentu, ta voron-
datea: atozte gucioc batean be-
tico zuen Jabea adoratzera, ta
alabatzera, Amen.

ORACIOA EDO ESCARIA.

; Ea Ceruco nere etorcari
aberatza, eta emalle ugaria!
Bada etzera ostatu pobre one-
tara alferric allegatu, eta ez
utsic nigana etorri, ezpada on-
dasunez beteric, nere jaberico
onena becela. Ondo zure bear-



tua nago. Badezu nigan, nun-
zure doayac ondo empleatu. O-
na Jauna, zure onetan, eta be-
guien aurrean nere anima tris-
te bearra: orra nere beguiac,
mingaña, escuac, eta beste
sentidu galdu erabagueac: di-
rana zuc erremediatu, zure ben-
dicioz bete, ta zure antzera
eguiteco.

Nundic escatzen asi ezdaquit
Jauna. Zuc nere berri obeto da-
quizu, eta zuri gusto emateco
cer ondoen dagoquidan. Zu
servitzeco, zure vorondate go-
zoa nere eheco ta campoco
lanetan, nere estutasun ta as-

nase gucietan beti eguiteco, zu-
re gracia indazu: eta orrequin
aberats, ta zorionecoa beti izan-
go naiz, Amen.

ORACIOA.

¡ Ceruco ondasun gucien Ja-
bea! Ez dizut utzico nere ani-
maren eche pobre onetatic ir-
teten: ez dizut utzico nigandic
joaten ni utsa, pobrea, eta bear-
tu utziric. Ez, Jauna, nere
ostatu onetatic juango etzera,
ni Zure bendicioz bete artera-
ño. Gucien Jabea cera, eta es-
queco gucien onguillea: ba-

dezu nigan ondo cer eguin.
Orra, Jauna, nere anima
lur legorra becela, zure euri
gozoaren esque. Orra ontzi
utsa becela, zuc graciaz betet-
zeco. Badaquizu, zure ant-
zeco humildade, paciencia, ca-
ridade, modestia, animaco eta
gorputzeco garbitasunaren cer
premi andia daucadan. Oriez
gañera indazu, zure bendicioa,
nere viotz au, nere beguiac,
mingaña ta beste sentiduac zu-
re guztora zucendu, eta mol-
datzeco, zure viotz santuagatic,
viotz berri, garbi bat indazu,
zure guisa, viciera berri bat

eguiteco, nere aleguiñ guciac
zuri jarraitzeco, zure voron-
datea, ceñean nere zori ona
baitagoan, oraiñ lurrean eguin,
eta guero Ceruan beti eguiteco,
Amen.

Anima Christi. Oracio ja-
quiña Aita San Ignacioc beti
esaten zuana.

Jesusen anima, santifica na-
zazu.

Jesusen viotza, irazaqui na-
zazu.

Jesusen Gorputza, salva na-
zazu.

Jesusen Odol precioso, zu-
re onez bete nazazu.



Jesusen viotzeco ura, garbi
nazazu.

Jesusen Pasioa, senda na-
zazu.

O Jesus ona, enzun nazazu.
Zure Llaguen artean, gorde
nazazu.

Zugandic irteten, utzi ez
nazazu.

Etsay gaizto-etatic, libra na-
zazu.

Nere eriotzaco orduan, dei
nazazu.

Zugana juatea, aguindu za-
dazu.

Santu guciaquin zu beti ala-
batzeco secula gucietan, Amen.

AMA VIRGIÑARI, TA SANTUAI ORACIOA.

; Ceruetaco gure Erreguiña
Ama Virgiña, Santa Maria,
nere Salvadore, ta Jaun aundi
onen Ama maitea! Ceruco
Aingueru eta Santuac, atozte
nere eche pobre onetara, zuen
gloria guztia, nerequin batean
nere viotzean adoratu, eta be-
deincatzera, eta nere ust, edo
falta guciac betetzera.

; O nere viotzeco Jaungoi-
coa! Zure santu guciac beti
bedeinca zaitzatela, neri eguin.

didazun misericordia, eta favore onegatic. Ecer ez det, Jauna; Zuc daquizu nere pobrezaren berri. Zuri esquerrac emateco cer esquiñi, edo aguindu ez daucat, ezpada nere viotz otz, edo ill au. Orra, Jauna, dana. Nic dedan, eta naizan gucia zurea da, ta ordu onean izan bedi helico zurea.

¡Ay Jauna! Cein gauza laburra, cein guchi dan viotz bacar bat, eta ori aiñ epela, eta ecer eza nola dan nere au!
¡Ah Ceruco Santu, Aingueru, eta Serafin iracequi gucien es-
pirituaz, ta munduan diran

guciac nic banitu, Zu beti adoratatu, ta amatzeco. Guciac naituzque, ta diranac, Jauna, zuretzat: Zuri amore onez guciac esqueintzeco, eta esquer onac emateco, Amen.

SANTA TERESAREN AVISOAC.

Ill zaitte, nai badezu vici.
Penatu, nai badezu gozatu.
Gechi, nai badezu igo.
Galdu, nai badezu irabaci.
Viva Jesus, ta Maria.



MEZA SANTUA CER DAN.

Eguzquiac Ceruco izar gu-
cien edertasuna estaltzen duan
becela, ala Meza santuac gañez
eraguiten die lurreco devocio
guciai: cergatic dan gure Re-

ligio Santuac dauzcan gauza-
ric aundi, eta errespetagarrie-
na. ¿Baña cer da Meza? Da
sacrificio, edo ofrenda divino
milagro^z betericaco bat, ce-
ñean Jesu-Cristo gure Jaunac
bere gorputz eta odol precio-
soac ofrecitzen diozcan bere
Aita Eternoari, oguiaren, eta
ardoaren antzen azpian. Da
Jesu-Cristoc ostegun santu ga-
bean, edo atzeneco afarian
eguin zuan sacrificio miragarri
ura bera. Da gurutzean illtzean
Aita Eternoari ofrendatu cioz-
can tormentu, eta eriotzaren
ofrecitze herri bat. Da azque-

nic bere Pasio santuco dolore,
pauzo, ta misterioen, eta oetan
eracutsi cigun amorio iracequi,
neurri baguecoaren acordagarri,
edo oroipen-garri bat.

Lau gauza jaquin bear dituzu, San Agustinec eracusten duan becela Mezaco sacrificio santu onen gañean: Nor dan sacrificio au ofrecitzen duan persona: nori ofrecitzen zayon: cer ofrecitzen dan: norentzat edo certaraco ofrecitzen dan.

Orain bada, ¿nor da Mezaco sacrificio santu au esaten duana, edo sacrificio guciz be-

neragarri ta errespetagarri, aueguiten, ta ofrecitzen duan Sacerdote principala? *Da Jesu-Cristo gure Jauna, Aita Eternoaren Semea.*

¿Nori, edo ceñi ofrecitzen dio? *Aita Eternoari berari.*

Eta, ¿cer ofrecitzen dio? *Bere gorputz, eta odol precioso, bere merecimentu cabu bagueco guciaquin batean.*

¿Norentzat, edo certaco ofrecitzen diozca? *Jaungoicoa honratzeco, eta gure oneraco, mesede, eta favore asco iristen dizquigula ofrenda miragarri onen videz.*



San Agustinec berac dio:
Mezatan gauza bi guertatzen dirala: bata aguirian icusten dana, edo campocoa, ta *dira eguiteco Santuac*. Bestea icusten ez dana, edo barrengoa, ta da *Jaincoaren Semeac bere gorputza, ta odola Aita Eternoari ofrecitzea*. Barrengo 'sacrificio onec ematen dio campocoari bere izate, espiritu, edo vicia. ¿Baña certaco? Orain esango diran lau fin, edo gauzataraco.

Lenengoa: Gu nola laburrac, ta limitatuac baigueran, ta Jaungoicoa infinitua, eta ca-

buric ez duana: eta Jaungoicoaren Semeac nola gure naturaleza daucan, eta berez nola persona infinito, eta cabu baguecoa dan, au guc ofrecituaz ematen diogu Jaungoicoari gurgandic nayen duen, eta aren anditasunari ondoen dagoquion honra, eta gloria.

Bigarrena da: Gure Jaungoicoagandic recibitu ditugun mesede, eta favore gucien ezquer onac, gracia, ta alabanzac emateco.

Irugarrena da: Sacrificio santu onen videz Jaungoicoagandic guretzat, eta gure adis-

quideentzat nai ditugun, eta
conveni diran mesedeac iris-
teco, ala espiritualac, nola tem-
poralac.

Laugarrena da: Jaungoi-
coaren colera eta asarretasuna
aplatzeco, aren justiciac pe-
catariac bereala castigatu ez
ditzan; eta bere misericordia-
ren bidez eman deigun au-
silioac, ta laguntzea estadu
triste artatic irteteco.

Emen prevenitzen det Es-
piritu Santuac Trentoco Con-
cilioan ematen duan dotriña:

Lenengoa. Santuen honran
Elizan mezac esaten badira-ere,

sacrificioric Santuai ofrecit-
zen etzayela, ezpada bacar-
ric Jaungoicoari, ceña dan San-
tuac eguiñ, ta gloriaz, eta hon-
raz coroatu cituana.

Bigarrena. Santustic aurre-
ra mezaco gauza guciac Jaun-
goicoaren santidade aundia a-
ditzera ematen dutela, edo mis-
terio oriec Ceruco usai divi-
noa dacartela.

Irugarrena. Espiritu San-
tuac Concilioan aguintzen die:
(*Mandat. S. Sinodus & ses 22*
cap 8) Animen contua dauca-
ten Curai, Meza santuco gauzac
beren ardiai ascotan eracustea.

Sacerdotearen ornamentu,
edo jantziac, itzac, gurutze,
señale, eta ceremonia guztiac,
misterioz beteac daude. Eus-
caldunac beren devocioraco,
oriec aldan ondoena jaquitea
arrazoi da: ta Santuen dotriña
orain nic emango diet onela:

MEZACO MISTERIOEN
DOTRIÑA.

Sacerdotea prestatu, ta or-
namentuac jasteco Sacristian
sartzean esan nai du, nola Jesu-
Cristo Ama Virginiaren sabel
garbian sartu zan, eta gure a-

raguizco soñecoa jantzi zuen,
eta bere sacrificioa Aita Eter-
noari ofrecitzeco prestatu zan.

Amitoa da: estalqui zuri bat,
burutic bera Sacerdoteac artzen
duana: eta esan nai du, nola Ju-
duac Jesu-Cristori burla egui-
teco ta masallecoac emateco,
arpeguia estali cioten.

Albac, nola Cristo zuriz jan-
ciric Erodesec burlas Pilatosi
bialdu cion.

Cinguluac, nola socaquin
gugatic lotu zuten.

Manipulo, esquer besocoac:
nola asotatzeco escuac lotu cioz-
caten. Ezquerrean ori artzen



da, Jesusen viotzeco amorioa gugatic azoteac artzean, ta guzor diogun amorio aundia eracusteco.

Estola lepotic gurutzaturic artzen da: eta esan nai du Jesus irugarren aldian, Gurutcea artzeco, soca gogor aundiaquin lepotic lotu zutela.

Casulla gucien gañean artzen danac: nola burla eguiteco granazco soñecoa jantzi cioten: edo Gurutzean jositzeco, nola tunica joscura-gabea quenda cioten. Jantzi, edo *ornamentuac* oyec dira.

Mezac iru parte ditu: *Ofren-*

daraño bat. *Pater norter*, edo

Comuniora bestea; eta *azqueñeraño* bestea. Bata da Sacrificioraco prestatzea; bestea ofrecitu, consagratu, eta comulgatzea Irugarrena da, Jaunari graciac ematea.

Ondo contemplaturic ceraditzera ematen duen misterio oyec esango dezu:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean † Amen Jesus.



MEZA AURRECO ORACIOA.

Trinidade guciz Santu Aita,
ta Semea, ta Espiritu Santua,
Jaungoico bat bacarra, eta iru
Persona cerana. Adoratzen zai-
tut humiltasun, eta errespeto
guciarequin. Esqueintzen dizut
entzutera noan Meza au lenen-
go lecuan: Zuri gauza gucien
asiera, eta iturburuari becela,
honoraric andiena emateco. Bi-
garrena: eguin dizquidatzun
ontarte, eta mesede gucien es-
quer, Zure diñacoac emateco,
Irugarrena: nere, eta lagun
urco vicien pecatuen barcacioa.

iristeco. Laugarrena: Purgato-
rioco animen alde Azquenean
ezqueintzen dizut Jesus mai-
tearen ofrenda au, eman de-
guidazun, Ceruco bidean bear,
eta on izango dedan gucia,
batez ere pecatutic alde egui-
teco, eta vicitza onean irau-
teco doaya.



MEZAREN ASIERA, TA
pecatuac aitorzea.



Consideratu nola Jesu-Cristo gure
pecatuac here gain aritu, ta orien
zorra pagatu zuan.

ORACIOA.

Jauna, enzutera noan Meza
au esqueintzen dizut eguin dis-
quidatzun mesede gucien es-
querrac emateco: nere, eta
beste gucien pecatuen barca-
cioa iristeco: eta indazu Ce-
ruco bidean bear, eta on izan-
go dedan gucia, batez ere pe-
catutic alde eguiteco eta vicit-
za onean irauteco doaya: Ala
izan dedilla.

INTROITOAN



Consideratu nola legue zarreco Santuac Jesu-Cristo guizon eguitea deseaten zuen.

ORACIOA.

Nere Jesus maitea, nere anima zure amorio santuan iracequi zazu, nere pecatuac eza-gutu, eta oriequin zu ofenditutaco damutasun eguiazcoa nere vici gucian iduqui dezadan. Ala izan dedilla.

KYRIE ELEYSON.




*Consideratu nola irutasun, edo Tri-
nidade hit Santuari misericordia
escatzen zayon.*

ORACIOA.

Jauna, erruquitu zaitz nitzaz.
Jauna, erruquitu zaitz nitzaz.
Jauna, erruquitu zaitz nitzaz.
Jesu-Cristo, erruquitu zaitz
nitzaz. Jesu-Cristo erruquitu
zaitz nitzaz. Jesu-Cristo, erru-
quitu zaitz nitzaz. Jauna, er-
ruquitu zaitz nitzaz. Jauna, er-
ruquitu zaitz nitzaz. Jauna,
erruquitu zaitz nitzaz.



GLORIA IN EXCELSIS DEO.



*Consideratu nola Aingueruac Jesusen
jayotzan cantatu zuen.*

ORACIOA.

Aingueruac alaba dezatela,
Jauna, zure ontasuna, Zu
jayo ciñanean becela. Orain
gure animetan zure graciaz
jayo nai dezu. Alabatzen, be-
deincatzen zaitugu: Zure gloria
andiatuac graciaz ematen diz-
quitzugu. Gure culpen barca-
cioa escatzen dizugu. Miseri-
cordia Jauna. Amen.

DOMINUS VOBISCUM
ta Oracion



Consideratu nola Jesu-Cristo guizonai ezagutzera eman eitzayen, ta iru Erregueac adoratu zuten.

ORACIOA.

Jauna, Sacerdoteac Santuen bitartez escatzen dizuna, nic ere escatzen dizut. Arren, Jauna, aren, eta nere erreguac entzun itzatzu. Igozu emen lurrean zure gracia, eta Cerruan betico gloria Jesu-Cristo gure Jaunaren mercedentuec gatic. Ala izan dedila.

EPISTOLAN.



*Consideratu nola Apostoluac peni-
tencia predicatu zuten.*

ORACIOA.

Gure Jesus, Maisu bacarra-
ren aurrean guciac issil bitez.
Atoz, Jauna, eta itzeguidazu :
Indazu nere animan zure Pro-
feta santuen zelo, eta amorioa
zure promesac, edo agunduac
cumpli ditezen. Ala izan de-
dilla.

EVANGELIOAN.




Consideratu nola Jesu-Cristoc mun-
duan predicatu zuan Doctrina.

ORACIOA.

Lurreco vide triste onetan
nabillen artean, Jauna, gauza
bi chit bear ditut: arguia, eta
janaria. Ez arren oriec neri
ucatu. Zure Evangelioco Do-
ctrina nere pausoen argui izan
bedi, eta zure Gorputz Divi-
noa nere animaren janaria,
emendic Ceruraño falta zadan
bidean erori ez nadin. Amen.

CREDOAN.



Consideratu nola Evangelioac ecarri
digun Legue santua, ta aitortzen du
aoue, viotzac simsten duana.

ORACIOA.

Esazu Credoan; baña devocio
guciaz, Apostoloac eman cigu-
ten Ceruco Dotriña becela. Gue-
ro esazu.

Jauna, zuc Eliza Ama San-
tari eracutsi diozatzun fedeco
egua guztia sinisten ditut. In-
dazu gracia nere vitcitzaco obra
guztiac fede vici batequin egui-
teco; eta guero orien sarian
Zurequin vici nadin, Amen.

OFERTORIOAN.



*Consideratu Jesu-Cristoren Dotriñac
ematen digula Fedea, eta au
aitortzeco laguntasuna.*

ORACIOA.

Jaua Soberano: Zure Semearen
sacrificio au Sacerdotearequin ba-
tean ofrendatzen dizut Zure gloria-
rie andienerraco: neri eta mundu
guztiari Zue eguindaco mesedeen
gracia emateco: nere, eta mundu
guciareri pecatuen satisfactoraco:
neretzat, eta nere obligacioco gu-
cientzat bear ditudan laguntza, ta
gracia guciac zugandic iristeco:
Zure Seme gare Jauna-gatic. Amen.

PREFACIO ETA SANTUS.



Consideratu nola Jesu-Cristo astoaren
gañean Jerusalenen sartu zanean,
Juduac cantatzen oioten, Santua,
Santua etc.

ORACIOA.

Jauna, alabatzen zaitut Ce-
ruco Aingueru guciaquin. Gu-
gana etorri nai dezu. Eman
nai dizquitzut bada viotzetie
ongui etorri, ta bedeincacio
guztiac Santua, Santua, San-
tua, ta gloriac betea zaude
gureizat. Jauna, zurea da glo-
ria. Ala izan dedilla.

CANON, TA MEMENTOAN.




*Consideratu Jesu-Cristoren pasio
santuaren asiera.*

ORACIOA.

Zure Seme Jesu-Cristo-gatic
escatzen dizut Jauna, Eliza
Santuagatic, Aita Santu, gure
Obispo, Erregue, ta beste fiel
guciac gatic: nere guraso, seni-
de, aide eta adisquide N. onelaco
gatic, onguille, eta gaitzguille
eta pecatari guciac gatic, Zure
graciara biurturic, Zu amat-
zen gucioc beti vici gaitecen,
Amen.

CONSARGACIOAN.



*Consideratu Pascoaco arcumearen
figura, ta beste figura edo iduri
gucien bucaera,*

ORACIOA.

Nere Jesus amoriotsua: az-
queneco afarian Zure Aposto-
loai eman ciñien Zure gor-
putza, ta Zure odola, Zure
ontasun ta misericordia an-
diagatic erregutzen dizut Sa-
cramentu onetan participante
eguin nazazula; eta orrela vici
izan zaiteata nigan, ta ni zugar
Zu beti alabatzen. Ala izan de-
dilla.



OSTIA ALCHATZEAN.



*Consideratu nola Jesu-Cristo guruz-
zean alchatu zuen.*

ORACIOA.

Adoratzen zaitut Jesus nere
Jaincotzat, ta Ostia Santu or-
retan adoratzen det Zure gor-
putz sagradua, gurutzeco al-
darean mundu gucia erredi-
mitzeco ofrecitu zana. Sinisten
det Zu or zaudela.

CAUZA ALCHATZEAN.




*Consideratu nola Jesu-Cristoc bere
zaurietatic odol precioso
issuri zuan.*

ORACIOA.

Adoratzen det Jauna, zure
Odol precioso, gure amorez
Gurutzean issuria, gure ani-
mac garbitzeko Zuc emana:
Odol precioso orretan espe-
ratzen det, nere culpen bar-
cacioa izango derala. Amen.

CALIZA ALCHATU ONDOREAN.



*Consideratu oraindie Jesu-Cristoren
pasioa, ta bere eriotza.*

ORACIOA.

Zucnaji dezun becela, Jauna
sacerdotearequin sacrificio au
esqueintzen dizut Zure Semea-
ren Pasio, ta eriotza, Erresur-
reccio, eta Ascensio gloriosoa-
ren erreverencian. Ostia gar-
bia, Ostia Santua, Ostia man-
cha gabea. Jauna, ez beguira
guri, ezpada Zure Seme maite
oni, Zure bendicioaz onequin
bat eguin gaitean. Amen.

OSTIA CALIZAREQUIN
alchatzean.



Consideratu nola José, ta Nicodemusec Jesusen gorputza gurutzetic erachi züen.

ORACIOA.

Nere Jesus ona: Zuc nere pe-
catuen zorra pagatzeagatic gu-
rutze batean vicitza eman cen-
duan: indázu bada neri ere nere
culpac eguiazco penitenciare-
quin deseguiteco gracia, ori-
entzat ill, eta zürequin Ce-
ruan vici nadin. Amen.

PATER NOSTERREAN.



*Consideratu Jesu-Cristoc gurulzean
esan cituan zazpi ilzac.*

ORACIOA.


Esazu Aita gurea onen zazpi
escariac soseguz pensatuaz. Egu-
neroco oguia escatzean adit-
zen da, gure obligacioac eza-
gutzeko arguia, Sacramentuen
laguntzac animac estadu gra-
ciazcoan irauteco, ta gorput-
zarentzat alimentua. Amen.

PATER NOSTERRA ESAN
ondorean.



*Consideratu nola Jesu-Cristo Lim-
bora jechi, ta an ceuden animac
atera cituan.*

ORACIOA.

!  nere Jesus maitea! Zure
anima Jaincotasunarequin uni-
turic jechi zan Limbora jus-
tuen animac pena artatic ate-
ra, ta gloriaz betetzera : indazu
neri ere gracia nere anima pe-
catuen mendetic atera, ta in-
fernuco penetatic libratzeco
lembait len, ta Santu gucia-
quin Ceruan alabatu zaitzadan.
Amen.

OSTIA PARTITZEAN.



*Consideratu nola Emausco Disci-
puloac Jesu-Cristo ezagutu zuen
ogua partitu cienean.*

ORACIOA.

Nere Jesus animen guidaria,
zure discipulú ta icasleac bece-
la, eramán nazazu vide zuce-
netic; nere viotza ta nere en-
tendimentua bete eta iracequi
itzatza, Zure arguiz emen,
Zure voróndatea eguiñaz Ce-
ruco gloria irichi dezadan. Ala
izan dedilla.

PAX DOMINI.



Consideratu nola Jesu-Cristo bere
Discipuloai aguertu citzayen,
ta paquea eman cien.

ORACIOA.

Jesus gloriaz betea! Zure
pizte gloriosoarequin idiqui
cenduan betico vicitzaraco atea,
eta ori aditzera eman ciñien
zure Apostoluai ezanaz: Pa-
quea izan dedilla zuequin: erre-
gutzen dizut, Jauna, eman de-
guiozula nere animari pecatu-
tic graciara piztu, ta gueyago
Zu ez ofenditzeco bear duan
laguntasuna. Amen.

AGNUS DEI.



*Consideratu nola Jesu-Cristoc bere
Discipuloai pecatuac barcatzeoo
escubidea eman cien.*

ORACIOA.

Jaincoaren Vildots garbia, mun-
duco pecatuac quentzen dituzun
Jesus ona, misericordia guzaz.

Jaincoaren Vildots garbia, mun-
duco pecatuac quentzen dituzun
Jesus ona, misericordia guzaz.

Jaincoaren Vildots garbia, mun-
duco pecatuac quentzen dituzun
Jesus ona, Zure ^{peccata} ^{deus} ^{deus} ^{deus}
Amen.



COMUNIOA.



*Consideratu nola Jesu-Cristoc bere
Dicipuloquin jan zuan Cerura
igo bañb lenago.*

ORACIOA.

Zu cera, Jauna, gure paquea. Apostoloai eman ciñien becela, Eliza Santuati, eta guri iguzu: gure gaitz, ta peligro gueietatic libra gaitzatu Zure vorondatea beti eguiteco, ta zugandic ñoiz ere ez apartatzeo gracia iguzu.

Jauna, nic merci ez det Zu nere echean, edo animan sartcea, baña itz bat esazu, eta nere anima saluatuco da. *Iru bider au esaten da.*

COMUNIO ONDOREAN.



*Consideratu nola Jesu-Cristo bere
virtutez Cerura igo zan.*

ORACIOA.

Jauna, baldin Zu beregan artzen
zaituana, Zuc cere seme, edo alaba
eguiteraño jasotzen badezu, arren
neri ere favore au eguidazu. Nere
naturaleza onez gaitzeraco dauzcan
grña macurrac atzera itzatzu. Zure
graciaz confesioco Sacramentuan
berriro jantzi nazazu, comunio es-
piritualetan beti fede vici ta amo-
rio iracequi batequin recibitu zait-
zadan.

BENDICIOAN.



Consideratu nola Jesu-Cristoc aguindu zuan becela, Espiritu Santua bialdu zuan.

ORACIOA.

Nere Jesus maitea, Zuc aguindu becela Espiritu Santua sugar bici, ta mingañen antzean Apostoloetara etorri zan: eguizu bada Espiritu consola-garri orrec nere viotza, ta anima bere argui ederraz bete, ta amoriozco surtan iracequi ditzan. Amen.

AZQUENECO EVANGELIOAN.



*Consideratu Jesu-Cristoren Jaingoi-
cotasuneco, ta guizatasuneco
misterioac.*

ORACIOA.

Nere Jaincoa: nic dedan, ta
naizan gucia zurea da, ta Zuc
eman didazu, bada dan guztia
nic Zari biurtzen dizut Zure
vorondate santuarequin go-
berna dezazun. Zure amorioa,
Zure graciarequin indazu, ta
orrela aberats izango naiz, eta
besteric nai ez det, Zuc nai
dezuna baicic. Amen.



AMOREZCO

ETA DOLOREZCO

JESU-CRISTOREN PAUSOAC.

Devocio onetan Jesu-Cristore-
quin itzeguitico, soseguz ciñatu,
Nere Jesu-Cristo Jauna, edo Acto
contriciozcoa viotzetie eguin, ta
batec gucien icenean ofrecimentua
esango du modu onetan:

OFRECIMENTUA.

Aita Eternua, Jaun guciz po-
deroso: beguira, ez guri ezpada
zure Seme maite Cristoren arpe-
qui ederrari, ta Calvarioco vide
santu onetaco pauso guztiac, viot-
zeco amore ta intencioaz batean,
zure gloriarie andieneraco izan
bitez, ta Ceruco egercio onetan
diran indulgencia, edo barcacio
guztiac, Aita Santuac nai duten
becela eguiñaz, irabaci nai ditu-
gu: ta Ama Virgiñaren escueta-
tie, zuc nayen dituzun Purgato-
rioco animen sufragioan, ta gure
salvaciore izan bitez. Amen.



LENENGO ESTACIOA.

Sentenciatu dute
Jesus maitea,
Gurutzean illzera:
¡O cer penea!

*Eriotzaco sententia Jesu-Cris-
tori eman cioten lecuá.*

Pensa ezazu, Cristava, nola

Jesus gure Redentorea, Ostiral
santu goicean, bost milla, eta
gueyago azote, arantzazco coroa,
ta beste tormentuaz gañera, gu-
rützean, eta lapur biren erdian
illzera Pilatosec condenatu zuan.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, Redentore mai-
tea! Azote, aranza, pena ta lotsaz
beteric, aiñ issill, ta aiñ humil
zure eriotzaco sententia gure
culpac-gatic artu cenduana. Zure
viotzeco amorio, ta humildade,
onegatic, arren Jauna, indazu
gracia, eguiazco penitenciare-

quin nere pecatuen cateetatic li-
bratzeco, ta zure Tribunal jus-
tuan nere favoreco sententia nic
aditzeco. Amen.

*Jauna, damu del zu ofendi-
tua, izan ezazu nitzaz miseri-
cordia.*

*Pater noster, Ave Maria, ta
Gloria &c. Aita Santuaren in-
tenciora, ta au pauso gucietan.*



BIGARREN ESTACIOA.

Orañ artzeu ditu
Gurutze batean,
Gure pecatuac
Bere gañean.

*Jesu-Cristori gurutzea eman
cioten lecu.*

Pensa ezazu, Cristava, nola



Jaunari burlaz janciricaco so-
ñeco zarra tiraca coroarequin
quendu cioten: bere soñeco ic
janci, ta coroa berrico tormentu
gogorraquin sartu cioten: eta
eriotzaco horriore gure peca-
tuen cappa guztia, edo Gurutzea
bere gañean eman cioten.

ORACIOA.

¡O nere Jesus Bildots guztiz
mansoa! Isac justua baño obeto
zure sacrificioraco egurra, zure
Aitareñ obediencia, ta gure amo-
ria gatic, zure sorbaldan era-
man cendüena! Zure viotzeco

ontasun onegatic, arren indazu
gracia, nere era-gabeco gogo-
gaizto guciac zure vorondateari
viciro sugetatu, ta nere culpai
ondoen dagoquien penitencian,
gurutzea beti zure ondoren go-
gotic eraman, ta lurreco ne-
queaquin Ceruco coroa irabaci
dezadan. Amen.

Jauna damu det &c.



IRUGARREN ESTACIOA.

Emen erori zan
Jesus lurrera,
Lurra jasotzeko
Bere aurrera.

*Gurutzea-requin Jesus lenengo
erori zan lecua.*

Pensa ezazu, Cristava, nola

gure Jesus maitea chit necatu, ta
oñen gañean ecin egon, eta Gu-
rutzearen cargarequin lurrera
erori zan. Beguira, nola infernu-
co canalla ayec Jaunari lagundu
bearrean, osticoca, golpeca, eta
arrastaca erabilli, eta nequez
jequi erazo zuten.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, Jaun guciz po-
derosoa, ta gure amorez onela
argaldu, ta lurra jo arteraño gu-
rutze-pean macurtua. Zure amo-
re, ta paciencia fin bague onega-
tic, arren Zure escua indazu nere

culpa pisuen azpitic, eguiazco pe-
nitenciar quin zugana jequitze-
co, eta zure gurutzearen ondoren
lurreco neque, ta dolore-etan
pocic ibilli nadin, eta zure arpe-
gui ederra Ceruco glorian icusi
dezadan. Amen.

Jauna damu det &.



LAUGARREN ESTACIOA.

Norc esan lezaque
Amaren penea,
Onela icusi ta
Bere semea.

*Jesu-Cristoc bere Ama Santisima
topatu zuan lecu.*

Pensa ezazu, Cristava, nola



Calvarioco vide onetan Jesus
onac bere Ama maitea pena, ta
negarrezco ichaso bat eguiniñic to-
patu zuan. Beguira ondo, begui
amorosoaz biac alcar icusi, ta
nola viotz batac besteari amo-
rez itz eguin cion, ta viotz laz-
tan biac dolorez ito, edo estu-
tuo ciran.

ORACIOA.

¡O Amaric maiteena, dolorez
ta ansiaz betea! Cer espata zor-
rotzac Zure anima josico zuen
zure viotzeco Semea eta Aingue-
ruen edertasuna tratu artan icu.

si cenduanean, burua arantzaz
josiric: arpegui eder ura chis-
tuz, odolez, ta autsez ichusitu-
ric, eta gure pecatuen carga,
edo Gufützea gañean zuala, ta
golpeca ceramatela. ¡O Amaric
afligituena! Arren indazu zure
Semcaren, ta zure pena oyen
lastima eguiazco bat, gure pe-
catuen barcacioa, ta zure amo-
rioa betico arqui dezagun. Amen.

Jauna, damu det &.



BOSTGARREN ESTACIOA.

¿ Gurutzea eramaten
Nai dezu lagundu ?
Bada emen nai due
Lagun bat artu.

*Jesus maiteari Gurutzea eramaten
laguntzeco Simon Cirineo artu
zuten lecuá.*

Pensa ezazu Cristava, dolorez.

co bide onetan nola gure Jesus
aiñ argal ta nequez cijoan ece,
Judu odolgiuroac Gurutzearen
cargarequin icara, ta erortzeco
zorian icusi, ta Simon ceritzan
Cirineoco guizon bat Jaunari
laguntzeco artu zuten, baña ez
lastimas, baicic cereñ Gurut-
zeco torimentuan illtzen icusi nai
zuten.

ORACIOA.

¡O Salvadore maitea: gure
pecatuen carga Zure gañean
artu, eta gure animen billa aiñ
nequez pauso oyetan ibilli cifa-

na, ta Simon dichosoaren ejem-
ploan, Calvarioco bidean Zuri
jarraitzen, ta laguntzen eracutsi
ciñiguna! Iguzu arren, Jauna,
zure pasioro paciencia, gure pe-
catuen damua, ta zure penen
viotzeco lastima andi bat: Gu-
rutzea eramaten orain zuri la-
gundu, ta orren frutua goza
dezagun Zu alabatzen Ceruco
glorian. Amen.

Jauna, damu det &.



SEIGARREN ESTACIOA.

Arpeguico icerdi
Eta odoletan,
Zapi bat busti du
Iru dobletan.

*Beronica esateñ dan andre piadosac
Jesus onari bere arpeguia garbitu
cion lecu.*

Pensa ezazu Cristava, nola



Jaunaren arpeguia chistuz, odolez, eta autsez beteric Beronica Santac icusi, ta iru doblezco zapi garbi bat artu, ta gucien artetic sartu, ta arpegui divinoa garbitu cion, eta iru tolesturetan Jaunac bere arpeguia estampaturic orien paguan utzi cion.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, eguiazco edertasunaren ispillua! Cembat nere pecatuac gatic itsusiagoa, ambat guretzat becela, Beronica Santarentzat maiteagoa! Baldin

gure culpac orrela itsusitu bacingduzten, orien damuac, edo eguiazco penitenciac, zure dolorezco icerdi, eta loyac quentzeco zapi garbiac izan bear dute. Iguzu Jauna, gracia, viotzeco negarraquin gure animac garbitu, ta zure imagiña vici bat orietan jositzeco, ta Ceruan zure arpegui ederra beti icusteco, Amen.

Jauna, damu det &c.



ZAZPIGARREN ESTACIOA.

Bigarren aldian
Emen da erori,
Eta zu etzera
Contuan jauci.

*Jesu-Cristo bigarren aldian
erori zan lecuá.*

Pensa ezazu, Cristava, erritic

camporaco ate batean, nola gu-
re Jauna Gurutzearen cargac
eritu, ta gucia argaldu, ta bi-
garren aldian erori, ta lurra
jozuan. Beguira nola borrero
ayec golpeca jaso zuten: eta Je-
rusalen galdua Jesus onac utzi
zuan.

ORACIOA.

¡O nere Jesus misericordiaz-
co Aita, munduaren jabe ba-
carra! Zu izanic, sorayo, ta er-
riaren desoura baciña becela,
Jerusalendic campora atera edo
bota eindaizen: ta orregatic ere

Erri dicha gabe ari lastimaz be-
guiratu ciñion, Arren Jauna,
zure piedade guztiaz gure ani-
mai beguira zayezu: ta Gurut-
zea eramaten nic pocie lagun-
duco dizut: ta gure culpac ga-
tic Erritic bota bacinduzte, guc
gure viotzean artuco zaitugu,
zurequin beti vicitzeco. Amen.

Jauna, damu det &c.



ZORTZIGARREN ESTACIOA.

Pecatua gatic
Negar eguizu,
Bada nere penac
Orrec eman ditu.
*Jerusalengo andreai Jesus onac
itz eguin cien lecu.*

Pensa ezazu, Cristava, nola



Jesus piadosoac bere desonra,
eta nequeen artean lapur infame
baten guisa baci Joan ere, andre
piadosa laztimaz, ta negarrez
aren ondoren cijoacena! esan
cien: Jerusalengo alabac, ez ni-
gatic negar eguin, baicican ce-
ren buruac-gatic, ta zuen umeac
gatic, ceren orien gañera gaiz
andiac etorri bear duten.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, Artzai ona
becela gure animen billa ibilli
ciñana! Calvarioco bide gogor
artan, ta zure penen artean ere

andre piadosai, ta ayetan guri
pecatuac gatic bear becela ne-
gar eguiten eracutsi ciñigun:
arren Jauna, argui vici bat
iguzu, ardi onen guisan, zure
dei amorosoa aditu, ta zuri ar-
zai onari becela zucen beti jar-
raitzero, eta gure viotzero ne-
garrakin orain zuri lagundu,
ta guero gure salvacioco deya
zure ao gozotic betico adi de-
zagun. Amen.

Jauna, damu det &.



BĒDERATZIGARREN ESTACIOA.

¡O pecatuaren
gauza astuna!

Irugarrenean

Jo du emen lurra.

*Irugarren aldian Jesus erori zan
lecu.*

Pensa ezazu Cristava, nola

aldaparen igoeran indarra fal-
tatu, ta Jesus maitea irugarren
aldian erori, ta bere arpegui
ederra autsez bete zuan. Jequi
nai ta ecin: ta etsai gogorrac
osticoca, tiraca, deadarrez esan
cioten: Ea, laster jequi: Gurut-
zean ill bear du, an illic icusi
nai degu.

ORACIOA.

¡O nere Jesus Ceruco Maisu
amorosoa! ¡O nola zure Gurut-
zea, eta lureco nequeac amore
onez eramatera animatzen gai-
tuzun! ¡Ay Jauna! Nere culpac

dira Zu bultzaca, ta golpeca lur-
rean irogarren aldian erabilli
zaituztenac. Arren iguzu gra-
cia orien penitencia eguin, ta
Gurutzearen penac gure culpen
saria becela artu ditzagun: zure
doloreac, eta amorioa contem-
platu, ta orien sarian Ceruco
dicha betico arqui dezagun,
Amen.

Jauna, damu det &.



AMARGARREN ESTACIOA.

Ona nun daucazun
Jesus billosic,
Burutic beatzera
Zauriz beteric.

*Jesu-Cristori bere soñecoac quen-
du ciozcaten lecuca.*

Pensa ezazu Cristava, nola



borrero odolzale ayec lastimari-
gabe, Jaungoicoaren Semeari,
bere soñecoac lotsa andian quen-
du, ta tratu gaiztoaquin, arri-
batean jarri erazo, ta beasunez
nastutaco ardoa eman cioten. ; O
nola burlaca, eta gaizqui esaca
emen desonratu zuten.

ORACIOA.

; O nere Jesus, paciencia mi-
ragarriaren ispillua! ; Cer nai-
gabe, ta angustiac zure viotzac
artuco cituan munduaren be-
guietan zure soñecoac quendu,
illaga. sagraduac berritu, ta lotsa

gorrián beazuna edateco eman
cizutenean! Arren Jauna, igu-
zu indarra pecatu, eta pasio-
en soñeco zarra quendu, ta zu-
re amorezco soñeco berria jant-
zitzeco, ta emengo atseguin fal-
so, beazunez beteac utzi, ta e-
guiazco zure atseguiañac arquit-
zeco. Amen.

Jauna, damu det &c.



AMAICAGARREN ESTACIOA.

Oñac, eta escuac
Iltzez josiric,
Emen dago Cristo
Penaz beteric.

*Jaungoicoaren Semea Gurutzean
josi zuten lecu.*

Pensa ezazu Cristava, nola

Jesus Bildots mansoa, aĩn isil-
gure pecatuac gatic sacrificatu
bear zana, Gurutzearen gañean
ezarri, ta tiraca zañac urratuaz
iltze gogorrarequin josi zuten,
ta oriec erremachatzeco, Jaun
divinoaren gañean jarri, ta gol-
pe bacoitzean, Ama Santisima-
ren viotz amorosoa, Semearen
gorputzarequin batean urratzen
zuten.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, pecatuac quent-
zen dituzun Bildots inocentea!
¡Ay! ¡Ta cer amorezco carobi!

Avician zure viotza orduan egongo zan! Bada aiñ humil, ta pocic, zure escu, ta oñ sagraduac gurutzean jositzeco eman cinducen: Zure amore, ta paciencia onegatic, iguzu, Jauna, gracia gure escu, ta oñac pecatuen cateac urratu, ta zure bildur ta amorezo iltzeaquin josi, ta zure viotzean beti vici gaitean. Amen.

Jauna, damu det &c.



AMABIGARREN ESTACIOA.

Emen Jesus ill zan
Guizonagatic,
Contura zaitez
Orain, ta beti.

*Jesus gure vicitza gurutzean
jaso, ta ill zan lecu.*

Pensa ezazu Cristava, nola



gure Jesus Jaungoico, ta guizon eguiazcoa, gurutzean josi, ta jaso zuten eta gurutzean asentatzezo bere sañac deseguin, eta puscatu, eta mendi santu artan gure Salvadorea airean aguertu zan: beguira nola lapur biren erdian tormentu, eta burlen artean ill zan.

ORACIOA.

¡O nere Jesus, Ama Virginiaren frutu bedeincatua, ta (gaur ordu onetan) gure pecatuac gatic madaricatua bacela, ta gure salvacioco frutu gozo eguin, ta ar-

bola santuan egon eññana! Gure indulgenciaco, edo barcacioco eguna au da: ta ori zure tormentuac, penac eta llagac: ori zure negar ta viotzeco deadarrac Aita eternoari escatzen diote, Alabiz Jauna, ta gure culpac eguiazco penitenciaz deseguin, ta zurequin ill, ta betico vici gaitean, Amen.

Jauna, damu del &.



AMAIRUGARREN ESTACIOA.

Gurutze gaitetic
Bere ama gana
Emen jechitzen da
Jesus laztana.

*Gorputz Santua jechi, ta Ama
Virgiñari eman cioten lecu.*

Pensa ezazu Cristava, nola

gure Jaunaren doloreac eriotza-
requin acabatu, ta Ama maitea-
renac dirauten gorputz illa lan-
zadaz idiqui ta Ama Virgiñaren
anima josi zuten, ta José, ta Ni-
codemus Santuac Gurutzetic je-
chi, ta amari presentatu cioten,
¡Cer onen penac, cer negarrac!

ORACIOA.

¡O nere Ama santisima, pe-
na, ta angustiazco ichaso ondo
gabea, Norc esan edo pensa de-
zaque, zure animan cer igaro
zan, zure viotzeco Semea illic
besoetan artu cenduanean. Aren

buru, escu, ta oñac, ta viotza
idiquia ecusi ta cer tormentu ta
doloreac artu cinducen! Arren
bada gure Amaric maiteena,
oriec gatic iguzu eguiazco las-
tina andi bat, pecatuen damuz
betico orientzat ill, ta zurequin
Ceruan vici gaitean. Amen.

Jauna, damu det &.



AMALAU GARREN ESTACIOA

Obi berri bat nai du
Zure viotzean,
Jesus illac betico
Zu bici zaitean.

*Obian edo Sepulcro berrian Je-
susen gorputza sartu zuten lecua.*

Pensa ezazu Cristava, nola do-



dolorezco Amaren besoetatic ne-
quez Gorputz Santua José eta
Nicodemusec artu ta izara berri
eder batean eguiazco Cristo gar-
biro untatu, eta arrizco obi ber-
rian devocio andiaz sartu zuten.
; O cer pauso onetaco Ama Virgi-
ñaren dolore, ta negar samiñac,

ORACIOA.

; O martiri guztien Erreguiña,
angustien pauso onetan, Jesus
Zure amorezco, eta dolorezco
lorapilla edo ramillete bat eguin,
ta zure viotzaren erdian beti
gorde cenduana! Zure martirio

paregabe onegatic, arren iguzu
zure escua, eta dicharic andiena:
ceña dan zure soledade triste
onetan zuri lagun eguitea, gu-
re culpen penitenciarequin, lur-
reco gauzac utzi, ta zure Seme
Jesus, ta zu beti amatzeco Ce-
ruan Amen.

Jauna, damu det &c.





JESUCRISTOREN
BOST LLAGA SAGRADUEN
ADORACIOA.

Nere Ama doloretacoa. Zure Semeac ni gatic artu cituan bost llaga preciosoac zure aurean adoratu nai ditut: ta oriec adoratzean zuc iduqui cenduan espiritu ta amorioa beti iduqui nai nuque.

Ezquerreco oñeco llagari.

¡O nere Jesusen llaga preciosoac; Biotz guztiaz adoratzean zai-

tut, ta orregatic escatzen dizut, Jauna, nere pauso ta ibillera gaiztoaquin eguin dizquitzudan ofensa gucien barcacioa.

Pater noster, eta Gloria Patri.

Esuico oñeco llagari.

¡O nere Jesusen llaga preciosoac! Biotz guztiaz adoratzean zaitut, eta orregatic escatzen dizut, Jauna, nere itz ta obra gaiztoaquin eguin dizquitzudan ofensa gucien barcacioa.

Pater noster, eta Gloria Patri.



260

Esquerreco escuco llagari.

¡O nere Jesusen llaga preciosa! Biotz guztiaz adoratzen zaitut, eta orregatic escatzen dizut, Jauna, nere beguiatz ta beste sentiduz eguin dizquit-zudan ofensa gucien barcacioa.

Pater noster eta Gloria Patri.

Escuico escuco llagari.

¡O nere Jesusen llaga preciosa! Biotz guztiaz adoratzen zaitut, eta orregatic escatzen dizut, Jauna, nere memoria, entendimentu ta vorondateaz eguin

261

dizquit-zudan ofensa gucien barcacioa.

Pater noster, eta Gloria Patri.

Costadu sagraduco llagari.

¡O nere Jesusen llaga preciosa! Biotz guztiaz adoratzen zaitut, eta orregatic escatzen dizut, Jauna, nola zure viotza lanza gogorraz josi zuten, eta zure Ama Santisimarena espata zorrotzac, ala nere anima zure amorioaz betico josi dezazula; bada ill nayago det, Zu ofenditu baño. Amen.

Pater noster, eta Gloria Patri.



BOST LLAGAI

*San Francisco Javierrec, egunero
eguiten cien oracioa.*

Nere viotzeo Jaun eta Jaun-
goico Jesu-Cristo, bost llaga
Gurutzean, eta beste ecin con-
tatu ala zure pasioan gure amo-
rioac ar erazo cizquitzunac gatic,
escatzen dizut zure odol precio-
soaz redimitu guinduzunoc, ar-
ren zure ontasunac gorde, eta
zure gloriara eraman gaitzala.
Amen.



ERROSARIO SANTUA.

Ama Virgñarequin itzegui-
ten asitzeco, soseguz eta ondo ci-



fiatu, eta *Nere Jesu-Cristo Jauna* &c. viotzetic esan, eta guero Elizac latinez diona: *Domine, labia mea* &c. batec asico du onela :

Y Idiquico dituzu, Jauna, nere espaniac.

B Etta nere aoac esango dituzure alabanzac.

Y Beguirazazu, Jauna, nere socorrura.

B Ea, atoz laster neri laguntcera.

Y Gloria Aitari, Semeari, eta Espiritu Santuari.

B Asieran zan becela, seculagucietan, orain eta beti. Amen.

MISTERIO GOZOZCOAC.
ASTELEN TA OSTEGUNETARACO.



Emen Sacerdoteac, edo batec Ofrecimentua esango du: eta guero obeto errezatzeco, ta Indulgenciac irabasteco, batec beti contu eraman, ta Pater noster ta Ave Mariac asi, ta besteac soseguz beti eranzungo dute.

LENENGO MISTERIOA.
Jaungoicoaren Semearen guizon eguita.

OFRECIMENTUA.

¡O Virginea Maria, Jaungoicoaren Ama miragarria eta gure Erreguinea! Amar Ave Maria oiec,



eta Pater noster au izan bitez zure viotzac artu zuen atseguiñaren erreverencian, San Gabriel Aingueruac berri onac ecarri, eta Aita Eternoac bere alabatzat, Semec amatzat, ta Espiritu Santuac esposatzat artu cinduenean. Jaungoicoa zure sabelean guizon eguindaco misterioric miragarrien onegatic, arren alcanza ciguzu gure viotzetaco humiltasun zurearen antzeco bat, gure pecatuen damuaz, penitencia eguiteco arguia, Principe Catilicoen eta oien Erreinoetaco paquea, eta Jaungoicoa servitzeco osasuna eta gracia. Amen.

Emen Pater nosterra, ta amar Ave Mariac errezatzen dira.

BIGARREN MISTERIOA.
Ama Virginiac Santa Isabeli eguin cion visita.

OFRECIMENTUA.

¡O Virginiã Maria, Jaungoicoaren Ama, eta virtute guztien jabea! Amar Ave Maria oiec, ta Pater noster au izan bitez zure biotzac artu zuen atseguiñaren erreverencian, Jaungoicoa zure sabelean artu, ta caridade viciaz zure lengusu Santa Isabel icustera juan ciñanean, hera Ceruco ondasunez betetzera, eta S. Juan



amaren sabelean santificatzera.
Zuen bien, eta zuen seme bien ar-
tean orduan igago ciran misterio
escutatuac ezagutzeco, eta gure
animac penitenciaz santificatzeco
bear dan gucia arren alcanza zai-
guzu, eta Principe Catlicoen, eta
oien Erreinoetaco paque, ta gure
Jauna servitzeco osasuna ta gracia

*Pater noster, ta amar Ave
Mariac emen ta beste-etan.*

IRUGARREN MISTERIOA.

Jaungoicoaren Semearen jaiotza

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña Maria, Jaungoicoa-

ren Ama, ta ontasun gucien itur-
ria! Amar Ave Maria oiec, eta
Pater noster au izan bitez Jesus
zure sabeleco Semea munduari
eman, edo jayo, eta trosa pobre
garbietan bildu, eta abereen es-
trabian eratzan cenduanean zure
viotzac artu zuen atseguñaren
reverencian: Zure Seme, ta gure
Jaun onen jaiotza santuagatic,
gure viotz-etaco garbitasuna ar-
ren alcanza zaiguzu, beraren
amorioan berriro jayo gaiten
eta Principe Catlicoen, eta oien
Erreinoetaco paquea, eta Jan-
goicoa servitu, eta amatzeco osa-
suna eta gracia. Amen.



LAUGARREN MISTERIOA.

*Ama Virgiñaren Purificacio, eta
Presentacioa.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria, Jaungoicoaren Ama ta garbitasun guciaren ontzi ederra! Amar Ave Maria oiec eta Pater noster au izan bitez, zure Semea besoetan bere Jarletucic precioso-enean becela gure erremedioraco Temploan ofrendatu cenduanean zure viotzac artu zuen atseguñaren reverencian. Misterio onetaco argui, ta ejemplo ederrac-gatic arren gure animaco illuntasuna quendu eta

Jesus gure dicha guztia ezagutzeco bear dan arguia alcantza zai-guzu eta Principe Catolicoen, ta oien Erreinoetaco paquea, ta Jaungoicoa servitu eta amatzeco osasuna ta gracia. Amen.

BOSTGARREN MISTERIOA.

*Jesus amabi urtecoa galdu, eta
Temploan arquitu zanecoa.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Naria Jaungoicoaren Ama, eta anima galduen Ceruco bide segurua! Amar Ave Maria oiec, eta Pater noster au izan bitez, Ama maitea becela, zure Semearen billa ibilli, eta Temploan



Ceruco maisua becela, lurrecoai
 eracuzten arquite cenduenean,
 zure viotzac artu zuen atseguiña-
 ren reverencian. Jaun au egu-
 noro obeto billatzeco, eta Maisu
 onen dotriña obeto icasteco, aren
 beraren argui bero bat alcanza zai-
 guzu baita ere gure pecatuen pe-
 nitencia, edo confesio on bat egui-
 teco bear dan gracia, eta Principe
 Catolicoen, eta oien Erreinoetaco
 paquea, eta Jangoicoa servitu,
 eta eriotza on baten gracia. Amen.

AMA VIRGINAREN LETANIAC.

Jauna erruqui zaitte.
 Cristo, erruqui zaitte.

Jauna, erruqui zaitte.
 Cristo, adigaitzatu.
 Cristo, entzun gaitzatu.
 Ceruco Aita Jaungoicoa.

R. Erruqui zaitte guzaz.
 Munduaren Redentore Seme
 Jaungoicoa. *R. Erruqui &.*

Espiritu Santu Jaungoicoa.
R. Erruqui zaitte guzaz.

Trinidad Santu Jaungoico bat
 cerana. *R. Erruqui &.*
 Santa Maria.

Jaungoicoaren Ama Santa.
 Virgüen Virgüña Santa.
 Cristoren Ama.

Gracia Jangoicozcoaren Ama.
 Ama guztiz garbia.

*R. Irregatu ezazu
 gugatic.*



Ama guztiz castoa.
Virgiña ceralaric Ama.
Ama tacharic gabea.
Ama zortzetic garbia.
Ama maitagarria.
Ama miragarria.
Creatzallearen Ama.
Salvatzallearen Ama.
Virgiña guztiz beguiratua.
Virgiña veneragarria.
Virgiña alabagarria.
Escu andico Virgiña.
Virgiña viotz beraa.
Virgiña leyala.
Virtute guztien ispillua.
Jaquinduriaren ecer lecu.
Gure poz emallea.

ri. Erreguin ezazu gugaric.

Ontzi espirituala.
Ontzi errespetagarria.
Devocioaren ontzi andia.
Arrosa misteriosa.
Daviden Torrea.
Marfillezco Torrea.
Urrezco Echea.
Batasunaren Cucha.
Ceruco Atea.
Egun sentico Izarra.
Erien osasuna.
Pecatarien igueslecu.
Estutasunen consueloa.
Cristaben laguntzalea.
Aingueruen Erreguiña.
Patriarquen Erreguiña.
Profeten Erreguiña.

ri. Erreguin ezazu gugaric.



Apostaloen Erreguiña,
Martirien Erreguiña,
Confesoreen Erreguiña.
Virgiñen Erreguiña.
Santu guztien Erreguiña.

Jaungoicoaren vildots mundu-
co pecatuac quentzen dituzuna.

Barca eiguzu Jauna.

Jaungoicoaren vildots mundu-
co pecatuac quentzen dituzuna.

Entzun gaitzartu Jauna.

Jaungoicoaren vildots mun-
duco pecatuac quentzen ditu-
zuna.

Erruqui zaitz guzaz.

Y Erregutu ezazu gugatic
Jaungoicoaren Ama Santa.

Y Erregutu &.

Y. Irichi ditzagun Cristoren
aguinduac.

ORACIOA.

Erregutzen dizugu, Jauna,
issuri dezazula gure animetan
zure gracia: Cristo zure Semea
guizon eguin zala Aingueruaren
aotic jaquindu degun ezquero,
aren pasio, eta gurutzearen bidez
erresurrecioo gloriara eramana
izan gaitecen, Cristo gure Jaun
beraren merecimentuac gatic.

Ala guerta dedilla.

Y. Jaungoicoaren laguntza
izan dedilla beti gurequin.

Y. Ala izan dedilla.



MISTERIO DOLOREZCOAC.
ASTEARTE, ETA OSTIRALETARACO.

LENENGO MISTERIOA.

*Getzemanico orduan Jesus mait
teac eguin zuan oracioa.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña Maria, Jangoicoa-
ren Ama, ta martiri guztien Er-
reguiña! Amar Ave Maria oiec,
eta Pater noster au izan bitez,
zure biotzeko Semea eriotzaraño
angutziaz estuturic, odolezco icer-
ditan deseguiten zan orduan zu-
re biotz maitagarri: c artu zuen do-
lorearen reverencian, zure Seme

Jesus oracio artan gure pecatuac-
gatic eriotzara ofrecierazo zuen
amorio andia gatic, arren gure
culpen eguiazco damu bat, eta
Jaunaren vorondatea beti egui-
teco indarra alcanza zaiguzu, eta
Principe Catolicoen ta oien Errei-
noetaco paquea, eta gure Jauna
servitzeco osasuna, eta gracia.
Amen.

BIGARREN MISTERIOA.

*Gure Jesus inocentea coluna bati
loturic nola azotatua izan zan.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña Maria, Jangoicoa-
ren Ama, ta pacienciaren ispillu



vicia! Amar Ave Maria oiec eta
Pater noster au izan bitez, zure
Seme ederra, bere soñecoac lotsa
andian quendu, azotez urratu,
ta odoletan cijoanean, zure biotz
amorosoac artu zuen dolore an-
diaren reverencian. Zure Semea-
ren arrigarrizco paciencia, ta
amorio onegatic, arren gure cul-
pen soñeco zar itsueia quentzeco,
ta oiec mercei duten castigua,
ta penac paciencian eramateco
biotz humil bat alcanza zaiguzu,
eta Principe Catolicoen, eta oien
Erreinoelaco paquea, eta gure
Jauna servitzeco osasuna, ta
gracia. Amen.

IRUGARREN MISTERIOA.

*Jesus onari aranzazco coroa nola
ipini cioten.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña Maria, Jangoicoa-
ren Ama, eta triste gucien con-
sueloa! Amar Ave Maria oiec, eta
Pater noster au izan bitez, zure
Seme Jesus, gucien eguiazco
Erregueari bere buru santua a-
ranzaz josi ciotenean, zure biotz-
zac artu zuan ecin esan alaco do-
lorearen reverencian: gure peca-
tuen eriotzaco aranza oriec be-
rari, eta zuri eman cizuten tor-
mentu andia gatic, arren gure



culpen ondorengo aránzac, ta
nequeac ondo eramateco bear
degun paciencia alcanza eiguzu,
eta Principe Catlicoen, ta oien
Erreinoetaco paquea, eta gure
Jangoicoa servitu, ta amatzeco
osasuna ta gracia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA.

*Gurutzea bere gañean artu, ta
Jesus Calvariora eraman zutenecoa.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña Maria Jangoicoa-
ren Ama, eta lurpean bideco gal-
duen argui ederra! Amar Ave
Maria oiec, eta Pater noster au

izan bitez, Calvarioco bidean zure
Semea gure culpen carga pisua
Gurutzean ceramala, ta nequeac
aren azpian erorten icusi cendue-
nean, zure biotz humillac artu
zuan paregabeco dolorearen re-
verencian. Jesus maiteac, eta zuc
Aita Eternoari iduqui ciñioten
obediencia miragarria gatic, ar-
ren alcanza zaiguzu, gure gu-
rutze, eta nequeen artean, aren
vorondateari zuen ondoren jar-
raitzeco obediencia humil bat,
eta Principe Catlicoen, eta oien
Erreinoetaco paquea, eta gure
Jauna servitzeco osasuna, ta gra-
cia. Amen.

**BOSTGARREN MISTERIOA.**

*Jaungoicoaren Semea nolo
Gurutzean josia izan zan.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria, Jangoicoa-
ren Ama, ta tormentu ondo ga-
beco ichasoa! Amar Ave Maria
oiec, ta Pater noster au izan bitez
zure sabeleco frutu bedeincatua,
gu salvatzea gatic, Gurutzean jo-
sia icusi, ta negarrez, ta odola ce-
riola gugatic erregutzen, ta illic
aren biotza lanza gogorrac idi-
quitzen icusi, eta zure biotzac ar-
tu zuen dolorearen reverencian,
zure Semearen Gurutzeco dolo-

re, ta amore gucia gatic, arreu
alcanza zaiguzu gure pasio, ta
gogo eragabe guciac Gurutzean
jositzeco virtutea, eta biotzeco
damuaz penitencia, edo confesio
on bat eguiteco bear dan gucia;
Principe Catolicoen, eta oien Er-
reinoetaco paquea. Jancoicoa ser-
vitzeco, eta amatzeco, ta eriotza
on bat eguiteco gracia. Amen.

Orain Ama Virgiñaren letania.

MISTERIO GLORIAZCOAC.

Igande, asteasquen, eta larumbateraco.

LENENGO MISTERIOA.

Jesu-Cristoren piztuera.

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria, Jangoicoaren



Ama, ta Aingueruen Erreguiña!
Amar Ave Maria oiec, eta Pater
noster au izan bitez, zure Semea
erioa veticitu, ta gloriáz heteric
Aingueru ta Santuen artean erre-
suscitaturic, zu icustera eta igaro-
taco penac bere gloriáz aztu erazo-
tzera etorri-zanean, zure viotzac
artu zuen Ceruco alegriaren re-
verencian. Gure esperanzaren
gloriázco Misterio onegatic arren
conciencia justu garbi baten espi-
rituco alegría alcanza zaiguzu eta
Principe Catolicoen. eta oien Er-
reinoetaco paquea, eta gure Jaun-
goicoa servitu, eta amatzeco osa-
suna ta gracia. Amen.

BIGARREN MISTERIOA.

*Jesu-Cristo nola ceruetara igo zan edo
miragarrizco Ascencioa.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña María Jangoicoaren
Ama eta Ceruco ate ederra! Amar
Ave Maria oiec, eta Pater noster
au izan bitez, zure Seme Jauna,
magestade guztiaz jantziric Ce-
ruetara igotzen icusi cenduanean,
zure biotzac artu zuen alegriaren
reverencian. Jesus maiteac Aita
Eternoaren escuian jarriric dau-
can poderio gucia gatic, arren
zure bitartez, gure biotzac lurre-
co nequeen artean beragana beti
jasotzeco gracia alcanza zaiguzu.



zurequin batean bera icusteco, ta adoratzeco: Principe Catilicoen, ta oien Erreinoetaco paquea, eta Jangoicoa servituzeco, eta amatzeco osasuna, eta gracia. Amen.

IRUGARREN MISTERIOA.

Espiritu Santuaren etorrera.

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria Jangoicoaren Ama, eta gure argui ederraren Ama Sautisima! Amar Ave Maria oiec eta Pater noster au izan bitez, Eliza Santaren argui, ta consue-loraco Espiritu Santua, Semeac Aita gandic bialdu zuenean, eta zure anima bezte gucienac baño gueyago bere doai ederrez, ta

gloriaco ondazunez bete zuenean, zure biotzac artu zuen alegriaren reverencian. Arren Espiritu con-soladore onen su gar vici bat, zure biotzeco ontzi garbian bece-la, bera ezagutzeco ta amatzeco aleanza zaiguzu: eta Principe Ca-tolicoen, eta oien Erreinoetaco paquea eta Jaungoicoa servituzeco osasuna ta gracia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA.

Virgiña Ama Cerura igo zaneco, edo aren Asuacioa.

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria Jangoicoa-ren Ama, eta pecatarien amparo



segurua! Amar Ave Maria oiec ta
 Pater noster au izan bitez, amorio
 gozoso zure eriotza preciosoaren
 eta erresucitatu ta gloriaz janciric
 Aingueruen erdian Ceruetara
 igo ciñaneco gloria paregabearen
 reverencian, Cerutar guztiac orduan
 artu zuten atseguin andia gatic,
 arren zure mantu pean vici gueran
 peccarioi gure eriotzaco orduan
 lagun zaiguzu zure escuetan, eta
 Jaunaren amorean gure anima eman,
 eta zu icustera betico igo gaitean:
 eta Principe Catolicoen, eta oien
 Erreinoetaco paquea, ta Jangoicoa
 servitzeco, eta amatzeco osasuna, ta
 gracia.

BOSGARREN MISTERIOA.

Ama Virgiñaren coraacioa, edo Ceruan nola coroatua izan zan.

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria, Jangoicoaren
 Ama, Aingueru eta Santu gucien
 coroaric ederrena! Amar Ave Maria
 oiec, eta Pater noster au izan bitez
 Trinitade Santissimoac esan al baño
 gloria andiagoaz gucien Erreguiña ta
 Aingueru guciac baño gorago igo,
 eta eman cizun dignidade guciz
 altuaren reverencian, Zuc or goien
 dituzun gloriazco honra eta ondasun
 guztiac gatic, arren



alcanza zaiguzu lurreco gauzac
oiñpean utzi, ta Cerucoac zure
ondoren ta zu icusi artean bi-
llatzea, ta orretaraco, Jauna-
requin batean, pecatuen egui-
azco damuz gucien confesio on
bat eguitea, eta Principe Cato-
licoen, eta oien Erreinoetaco pa-
quea, eta Jaungoicoa beti amat-
zeco osasuna, ta gracia. Amen.

Orain Ama Virgñaren letaniac.



Acto Fedecoa, Esperanzacoa, ta Carida-
decoac, ceñac eguin bear diraden urtean
beñ guchienaz.

ACTO FEDECOA.

Sinisten det dala Jaungoico eguiazco
bat, eta iru persona diferenteac, ceñac
diraden Aita, eta Semea, ta Espiritu San-
tua. Sinisten det Trinidad Santisimoco
bigarren Persona eguiñ zala guizon Ma-
ria Santisimaren entraña garbietan, Es-
piritu Santuaren obrax ta virtutez, guel-
ditzen zala Señora Soberana au virgñia,
Semea eguin baño len, eguitean, eta
eguiñ ezquero. Sinisten det Jaun onec
padeçitu zuala ta ill zala gu salvatcea-
gatic, pistu zala illen artetic irugarren
egunean, igo zala Ceruetara, eta etorrico
dala viciac eta illac juzgatzera : au da o-
nac premiaztara, ta gaiztoac castigatzera.
Sinisten det aldareco Sacramentu San-
tuan dagoala Jesu-Cristo gure Jauna, Ja-
ungoico, eta guizon eguiazcoa Ceruan da-
goan becela. Sinisten det Anna Eliza San-
ta, Catolica, Erromacoac sinisten duan
guztia eta Fede onetan nai det vici eta ill.

ACTO ESPERANZACOA.

Daducat esperanza Jaungoicoagan, barcatuco dizquidala nere pecatu guztiaç, eta emango dirala here gracia, eta gloria, bere misericordia infinitua gatic; Jesu-Cristo nere Jaunaren merecimentuac gatic, ta aren Ama Santisimaren erre-guac gatic, eguiten badeç nere partic obligacio dedana eta eguin dezaque-dana, ceña dan penitencia eguiaçcoa.

ACTO CARIDADECOA.

Amatzen det Jaungoicoa beste gauza guztiaç baño gueyago, eta nayago ditut gaidu guztiaç, aren Divina Magestadea baño. Eta nainuque amatu, munduco justu guztiaç, eta Ceruco Bienaventura-duac ta Serafin guztiaç amatzen duen be-cela. Eta posible balitz, nai nuque ama-tu, beraren Ama, eta nere Señora Maria Santisimac amatzen duan becela. Ez a-matua, ofenditua izatea aibeste ofen-ditzen dutenac, eta guztiaç ez amate-a aren Divina Magestadea, bera dana izana gatic, damu det nere biotz guztitac, eta proponitzen det emendatzea, aren gracia mediante dala, Amen Jesus.



JESUCRISTOREN PASIOA EUZQUERAZ.

- 1 Jesu-Cristori quendu ezquero
Pecatuquin vicitza,
Baldin ezipadet negar eguiten
Arrizcoa det viotza,
Gucioç lagun,
Canta dezagun
Bere penazco eriotza.
- 2 Mundua baño lenagotican
Señalaturic eguna,
Alderatu zan obratzecotzat



Guizonaren osasuna
 Arguia bera
 Alde batera,
 Bestetic egun illuna.
 3 Ostegun Santu afal onduan
 Bere lagun cituala,
 Jesusec iru Dicipuloai,
 Itz eguin cien onela:
 Triste nago ta
 Lo ori bota,
 Eguizute emen gaudela.
 4 Getsemanico hortu santuan
 Auspez lurrean jarriric
 Escatzen cion, libra cezala
 Aitari Caliz artatic;
 ; Jesus penatzen,
 Odolez urtzen,
 Eta ez det nic negarric?
 5 Icerdi otza arpeguian, ta
 Biotza Penen artean,
 Triste anima corputza larri
 Agoniaco trancean,
 Baña alere
 Cegoan firme
 Aitaren vorondatean.
 6 Juduac Judas lagun arturic
 Etorri ciran itauntzen.

; Nazarenoa deritzan Jesus
 Emen oteda arquitzen?
 Judas orduan
 Paque moduan
 Dijoa musu ematen.
 7 Cembat dirade Judas becela
 Cristoren adisqueac,
 Campotic laztan, barrendic saldu
 Ausiric beren legueac,
 ; Ha Cristau falso
 Anima gaizto
 Pecatari traidorea!
 8 Eranzun zuan Jesus maiteac
 ; Ceñen billa zatozte ona?
 Ona emen nago, ez da besteric
 Naico dezuten guizona:
 Juateco ez det nic
 Soca bearric,
 Ez eldu lagunoc-gana.
 9 Escuetatic lotu izan zuten
 Guicien libertadea,
 Cergatic au zan nere onean
 Jaunaren vorondatea,
 Ala urratzeco
 Aimbart urteco
 Pecatuaren catea.
 10 Dicipuluac beren Maisua



Zufenean ala icusi,
Bacar bacarric bera utzi, ta
Joan citzaizcan iguesi,
Pedro cetorren,
Bere ondoren,
Baña au ere urruti.

11 Badaramate Jerusalengo
Sacerdoteen aurrera,
Dicipuloen, gañean, eta
Dotriñan contu artzera,
Caifas gaiztoa
Aurrenecoa
Azten zayo itauntzera.

12 Ez det nic, dio Redentoreac,
Predicatu ezcutuan,
Aguirian zan nere dotriña
Sinagogan ta Temploan,
Ez neri galde,
Asco dirade
Enzun nautenac munduan.

13 Errespuesta aditu becela
Soldadu batec bertatic
Gora darama bere besoa,
Eta darautso Jaunari
Icasi dezazun
Nola eranzun
Berriz Pontificari.

14 Esan, ta eguin ematen dio
Bere arpegui ederrean
Belarondoco portiz bat ceñec
Esarri zuan lurrean,
; Eta Ceruac
Daude lotuac
Au icusten dutenean ?

15 ; Noizeo dirade Aita Eternoa
Chimistac eta rayoac,
Ez erretzeco an bereala
Escu aín sacrilegoac ?
Aingueruac, ea,
Atozte egan,
; Nun dituzute egoac ?

16 Baldin gaizqui itzeguin badet
Arrazoi eman ezazu,
Baldin ezpadet, diot Jesusec,
Ecertan ere erratu
Cergatic arren,
Itz eguin arren,
; Onela tratatzen nazu ?

17 Indazu Jesus viotzecoa,
Zure sufrimentu ori,
Jaquin dezadan nola penetan
Emango dedan arpegui,
Bareaturican
Biotzetican

Etzairic andienari.

18 Damu det Jauna biotz guztitic

Zu ofenditu izana,
Ez gueyago pecaturican
Nere Jaungoico laztana,
Ez ya culparic,
Betoz argatic,
Pena orieci nigana.

19 Sua cegoan atarian, ta
Pedro su artan berotzen
Cerren biotzac amorioan
Otzjasco-cion sentizen,
Suaren queac
Bere beguic
Negarrez bete cituen.

20 Ceren ollarrac etzuen eman
Bi bider bere soñua,
Nun iru aldiz ucatu zuan
San Pedroc bere Maisua,
Ezta hestic
Ocasiotic
Ateratzen dan pagua.

21 Caifasec berriz galdetzen dio
Eguinic juramentua,
Esan zadazu, Jesus, bacera
Mesias prometitua,
Ala ezpada

¡ Certaco izan da
Engañatzea mundua?

22 Bacequien Jesusec nora
Cijoan confesioa,
Billatzen zuan condenatzeco
Caifasec ocasioa,
Eta arequin
Nai-cion eguin
Illtzeco acusacioa.

23 Ala-ere bayetz erantzuten du
Aitari beguiraturic,
Bay ta Caifasec-ere deadar
Soñecoac urraturic;
Blasfemo ena
Da onen pena
Ya dago causa eguinic.

24 Jequitzen dira Conciliotic,
Ta artzen dute videa
Amargurara, nun Pilatosec
Ceucan bere echea,
Zan Erromaco
Dembora artaco
Juduen Presidentea.

25 Juezac dio emango badet
Guizon au eriotzara
Ecarquizute causa justuac
Ezparidade certara



Darabiltzute
 Erama zute
 Or Herodesen aurrera.

26 Aita Eternoaren Jaquinduria
 Dauca munduac zorotzat
 Argatic dio Erregue orrec
 Janci tunica zuri bat,
 Bestela nola
 Cerueo estola
 Erosico zan guretzat.

27 Esan cioten Pilatos-orri
 Juduen Sacerdoteac,
 ; Uste aldezu ez ditugula
 Guc ere gueren legueac?
 Blasfematu du
 Mereci ditu
 Eriotza ta azoteac.

28 Onec esandu, izanic Arotz
 Pobrecho baten Semea,
 Dala Jaincoaren Semea, eta
 Judeaco Erregueac;
 Illtze ezpadezu
 Etzera ez zu
 Cesarren adisquidea.

29 Naizuquean Juezac Jesus
 Eriotzatic libratu,
 Cergatic bere inocencia

Ondo zuan ezagutu,
 Bañan Juduac
 Ceuden ichuac,
 Etzioten permititu.

30 Eriotza bat eguin da dño,
 Dago Barrabas carcelan
 ; Nor naidezute, Nazarenoa
 Edo au libra dezadan?
 Da costumbrea
 Bat libratzea
 Zuben Pascoa-egunean.

31 Ozta aotic atera zuan.
 Asi ciraden deadarrez,
 Libra ezazu Barrabas; baña
 Jesus Nazarenoa ez,
 Orrec beardu
 Ondo penatu
 Abe batean dolerez.

32 Berriz galdetzen du Pilatosec
 Baña cer causa emandu
 ; Israelco erregue dala,
 Esatea da pecatu?
 Ayec deadar
 Erregue Cesar
 Ori gurutzean ipintzu.

33 Justiciaco legue guciac
 Utziric alde batera.



Salvadorea condenatzen du
Cruelqui azotatzera,
Ceru altuac
Cer decretuac

Dátoz ortican lurrera!

34 Jaungoico ura ceñec daducan
Mundua lores janciric
Deseortesquiro bere arropac
Tunicaraño eranciric,
Larru gorrian
Egun arguian
Utzi zuten lotsaturic.

35 Nora cerate gaba, ta odayac
Illuntasuna nun cera
Nola etzatozte Virgñaren
Seme eder au estaltzera,
Orra eguzquia
Zure arguia
Biral- ezazu atzera.

36 Bost milla azote, eta gueyago
Loturic coluna batean,
Asi ciraden iru borrero
Bere espaldetan ematen,
Ibai bat nola,
Ala odola
Abiatu zan issurtzen.

37 Arriac eta Salvadoreac

Biac alcar ciruditen
Cergatic etzan aren aotic
Sentimenturic aditzen,
Marmolac berac
Golpe cruelac
Cituanean sentitzen.

38 Pilla artatican bereala Jauna
Soldaduac escaturic,
Dijoazquio adoratzera
Burlaz Erregue eguñic,
Bere coroa
Aranzazcoa
Buruan aguitz josiric.

39 Mantu zatarra soñean, eta
Cañabera bat escuan,
Onela Jesus tratätzen zuten
Becatariac munduan,
Mundua bera
Redimitzera
Jauna cijon orduan.

40 Jesus onela icusi, eta
Pilatos erruquituric,
Dio herriz, nie ezdecarquitzen
Guizon onetan culpatic,
Ill ezazute
Nai badezute
Erroman ez da legueric.



- 41 Ayec deadar , Jauna dalaco
Pilatos bidur bacera
Datorquiela gure animai
Orren odola gañera ,
Ez guera ardura ,
Gure contura ,
Condena ezazu Gurutzera .
- 42 Juez gaiztoac Sacerdoteen
Esana eguitea-gatic ,
Publicatzen du sententia bat
Ez inore oquerragoric ,
Ala ere nai du
Libre guelditu
Jaungoicoaren odoletic .
- 43 Alfer alferric Presidentea
Garbitzen dituc escuac ,
Juez justutzat iduqui azan
Hipocritori munduac ,
Loituric hago ,
Bañan gueyago
Hi baño-ere Juduac .
- 44 Gurutze batean mundu gucico
Pecatuac cituela ,
Abiatu zan Calvariora
Jesus lapur bat becela ,
Artu Gurutzea ,
Au da videa ,

- Galduco guera bestela .
- 45 Salvadorea pauso bat ere
Ecin emanic aurrera ,
Arbola astunac azpiraturic
Venzutu zuan lurrera ,
¡ O pecatua
Zure pisua ,
Carga gucia zu cera !
- 46 Ecin bacarric eraman zuan
Zalaco guciz astuna ,
Eta argatic eman cioten
Cirineoa laguna ,
Dichasco guizon
Cerade Simon
¡ Nore luquean zure eguna
- 47 Bide onetan cijoanean
Calvarioco mendira ,
Bere semea contemplazeco
Ama cegoan beguira ,
An dira penac
An tormentuac ,
Martirioc an dira .
- 48 Ama Virginea astigitura
Ichi itzatzu beguic
Estali zaite ain bague ere
Asco darama Semeac
Tormenturican ,



Ea' ere itzican
Ez dizu utzico negarrac.

49 Biraltzen ditu Amac beguiac
Semearen icustera ,
Bañan biotzac sufritu ecin ta
Biurtzen dira atzerá :
Datoz argatic ,
Beguia-gatic
Biotzac itz eguitera.

50 Semearenac esaten dio
Badaquizu Ama maitea ,
Asco sentitzen badezu ere
Onela ni icustea ,
Bestela ecin
Cernarequin
Egingo dala baquea.

51 Nere Aitaren vorondatea
Ceurea beti daucazu ,
Arren esanac narama : Agur
Bendicioa indazu ,
Nere ordeaz
Pecatariaz
Contua zue iducazu.

52 Zuaz nere seme maitea ,
Illcera ordu oncan ,
Bañan nola ni utci nazu
Bacardade ain tristeian ,

O nola bai nic ,
Eta ondo pocie
Jarraituco nizuquean.
53 Salvadorea onela penaz
Eguinic vide erdia ,
Veronicaren carideac
Quendu cion icerdia ,
Obra onen pagu
Jaunac uztendu
Pinturan bere arpeguia.

54 Ceramaizquian bere lagunzan
Jerusalengo alabae
Penaren andiz beguetic
Urturic beren biotzac ,
Eta berengana
Biurturican , Jaunac ,
Dio : ¡ Ay emacumeac !

55 Arbola ece au erre badu
Pecatuaren su garrac ,
¡ Nola ez ditu abrazatuco
Su orrec egur igarrac ?
Ez neri negar ,
Ez det nic bear
Pecatuari negarrac.

56 Eldu ciraden Calvariora ,
Nun eaden prest borreroac
Mundu gucico eguilleari



Josteco oñac ta escuac,
Ieusi cezan
Bigarren Adan
Arbola artan munduac.

57 Nore ditu escu , oin orietan
Burniarequin idiqui,
Gorrotoac , edo amorioac
Odolezco lau iturri ?
Bularretican
Ate eguiñican
Amorioa da aguri.

58 Beltzez janciric ezcutatzen du
Cernuac bere arpeguia
Lotsagatican guelditzen daja
Gorrituric illarguia,
Gau illunean
Cegoanean
Altuen a eguzquia.

59 Austen dirade arriac , nola
Daude biotzac osoric
Abe batean doloz illtzen
Gure vicitza ieusiric ,
Pecatariaic ,
Gora beguiaic
Negar iturri eguiñic.

60 Gogotic negar eguingo dizut
Jarri cere eñetan .

Nere Jaun ona zaitudalaco
Ipiñi Gurutzean,
Daucat damua
Zu ofenditua
Gauza gucien gañean.

61 Izanagatic , Jesus maitea
Nere pecatua andia,
Precioso da Zure odola
Au daquidala balia ,
Piedadea
Nere Jabea ,
Jauna misericordia.

ARQUIBIDEA.

Iracurleari avisoa	3
Cristavaren devocioric santuenac	8
Meza ta comunio sagraduen do- triña	19
Goiceco oracioac	27
Iru Ave Mariae	29
Maico oracioac	31
Asteco zazpi egunetaco medita- cioac	35



Ondo confesatzeco ejercicioa.	76
Esamiña aurreco oracioa.	78
Esamiña concienciacoa.	81
Esamiña ondorengo oracioa.	105
Jaunari barcacioa escaizcoea.	106
Confesio aurreco acto contricioz- coa.	110
Beste iru consideracio.	113
Confesio ondorengo oracioa.	123
Comunio espirituala nola dan.	124
Bera eguiteco modu errazac.	127
Ondo comulgatzeco egercicioa.	132
Comunio santua artzeco modua.	138
Comunio ondorengo oracioa.	139
Meza santua cer dan.	150
Mezaco misterioen dotriña.	158
Meza enzuteco modua ta oracioac.	162
Calvario Santua.	214
Jesusen bost llaga sagraduac.	258
Errosario santua.	263
Ama Birgaren jataniac.	272
Acto fedecoac.	293
Jesu-Cristoren pasioa.	295

